

3

Ruper Ordorika
20 urte musikan eta
oraindik ibili dabilen
harria

7

Mariasun Landa
“Herioak aldegin
zuen beste egun
batean jarraituko
zutela esanaz”

22

Giza baliabideak
Hautaketa-proze-
suetan ikasmailak
ez du beti bermat-
zen lanpostu
baterako egokita-
suna

Joshua A. Fishman:

**“Bigarren hizkuntza bat
ikasten ez dago galtzailerik,
hizkuntza bietan ateratzen
baikara garaile”**



Soziolinguistikaz ari garela, Fishman dugu izen handietako bat, inolako aurkezpenik behar ez duen horietakoa. Soziolinguistikako aitzindaria, hainbat liburu argitaratu ditu. Azkenengoetakoa, RLS teoriari buruzko gogoeta, hau da, hizkuntzak biziberritzeko teoria. Gaur egun, azken liburu hori berridazten ari da, eta bertan hainbat adituren ekarpen eta ikuspuntuak ere lekua izango dute. Horri buruzko xehetasunez gain, hizkuntzen inguruko beste zenbait kontu ere jorratu ditugu berarekin.

10. or.



Hizkuntza gutxituak biziberritzeko ahaleginetan

Mundu osoko lauhun bat adituk parte hartu zuten abenduaren hasieran Bilbon izandako Eremu Urriko Hizkuntzei Buruzko VII. Nazioarteko Biltzarrean. Guk egokiera profitatu dugu Jean-Claude Corbeil, Richard Bourhis, Lluís Jou, Colin H. Williams eta Durk Gorter-ekin hitz egiteko. Quebec, Gales, Frisia, eta Kataluniako egoerari buruzko zenbait gauza ezagutzeko aukera izango dugu, batez ere, zertan ari diren gaur egun eta zeintzuk diren beraien ardura nagusiak.

13. or.

EZTABAIDA Zer ekarriko digu XXI. mendeak?

Datorren mendea edo milurtea noiz hasiko den eztabaidatu barik, aurrera begiratu nahi izan dugu urte hasiera honetan. Arlo ezberdinetan diharduen jendearengana jo dugu, bakoitzak bere esparrutik etorkizuna nola ikusten duen jakiteko. Artea, filosofia, historia eta zientzia izan dira guk aukeratutakoak, eta ikuspegi horretatik hurrengo mendeari begira jarri ditugu gure gonbidatuak. Datorrena datorrela, zuek ikusteko eta gu kontatzeko izan gaitzela.

20. or.

LATE BERRI OFF

2000





PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinua, fotokonposaketa eta inprimaketa: Itxaropena S.A.

Marrakizkiak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Jon Agirre, Fulgen Aledo, Goretti Aranburu, Lutxo Egia, Luis Elizondo, Iñaki Frieria, GFAko Itzultzaile Lantaldea, Jakes Goikoetxea, Aitor Gorostiza, Enrike Gorrotxategi, Xabier Iriondo, IZO, Mariasun Landa, Aitziber Larramendi, Joseba Lozano, Luma, Cristina Puelles.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik ateratu diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Legezko Gordailua: BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /<http://www.ivap.org>

PERTSONAIA



Ruper Ordorika: “musikan gero eta handiagoa da bi hizkuntz komunitateen arteko etena”

Duela ia 20 urte anphora hautsi zuenetik hamaika lan kaleratu ditu Oñatiko musikari honek: bakarrik, bidelagun izan ohi duen Mugalariak taldearekin, Hiru Trukurekin (Bixente Martinez eta Joseba Tapiarekin batera) edo, azken diskoan bezala (*Dabilen harria*), New Yorkeko lagun batzuekin. Zuzeneko bi emanaldi grabatu ditu eta martxoan plazaratuko du proiektu berria.

20 urte inguru daramatzazu musikan. Zer deritzozu egindako lanari?

Egunero gauzatzen den ikasbide batean nago, eta asko daukat egiteko. Alde batetik, hasi nintzenez bezain ezjakina naiz; bestetik, bilakaera izan dut eta gauza askotan askoz ere helduagoa naiz. Beti ere hurrengo proiektuari begira nago, aurkitu nuen hari horri jarraiki.

Bakarkako lanaz gain, musika tradizionalari heldu diozu Hiru Truku taldearen laguntzaz. Behar bezainbeste estimatzen al dugu geure musika tradizionala?

Gure herri-musika beste edozein herrialdeakoa bezain aberatsa da; baina hemen zaindu egin dugu musika hori ideologia baten ondorioz. Horrek oihartzun eta eragina du musikariengan.

Pott Bandaren garaiaz hitz egitean asko errepikatu duzu esaldi bat: “Kontsumoaren aurka, kreazioa”.

Lehengoa Bernardorekin hizketan (Bernardo Atxagaz ari da), berak ez zuen oroitzen, esaldia berea den arren. Beti erabiltzen dut esaldi hori garai hartako gure giroa adierazteko: elkarrekiko oso eskuzabalak ginen, dena kontatzen genion elkarri... Esaldi horrek jartzan zaitu toki berezi batean non gauzak aldatzeko gogoia gauzatu egiten den. Behar bada hori lortzen da entzulego eta lagun onak edukita, beraiek baitira norberak egiten dituen gauza txiki horiei balioa ematen diotenak.

Hamaika disko kaleratu dituzu eta gai askori buruz hitz egin duzu kantuetan. Nola sortzen da zerbaiti abesteko edo beste baten hitzak musikatzeko grina?

Betidanik musikazalea izan naiz, musikari baino lehenago. Poesia asko gustatzen zait eta poesia bere orritik ateratzeko bidea iruditzen zait musika.

Hala ere, azken diskoetan musikatik abiatu zara kantak egiteko orduan.

Bai. Behin doinua egin eta gero, batzuetan oinarrian egon den ideia bat gauzatu egiten

dut hitzetan; bestela, testuak erabiltzen ditut. Arazoa da ez dudala maiz idazten eta, era berean, ez dut askotan idatzita aurkitzen nik kantatu nahiko nukeenik.

Zuk esana da: “Gure gatazkak hemengo indarren atal ikaragarri bat eramaten du autodefentsarako, eta ez da sormenerako kemenik gelditzen. Hori da lehengo eta oraingo garaien arteko diferentzia”.

Begi bistakoa da. Merkatu bat erreproduzitzera garamatzaten joerek askotan badute arrisurik. Zergatik? Nonbait baloratu litekeelako estilo hori gure hizkuntzan bakana delako eta ez ona delako. Bestalde, autodefentsarako beharrak sekulako indarrak eramaten ditu; baina, hala ere, baita izugarritzko maila kreatiboa bermatzen ere. Azken urteetan musikaren ikuspegitik gehien aldatu dena hau da: gero eta handiagoa dela bi hizkuntza komunitateen arteko etena. Euskal Herriko erdal komunitateak oso gutxi kontsumitzen eta ezagutzen du euskal produkzioa, lehen –duela 15 urte– baino gutxiago. Kontsumitzaile kulturalak diren aldetik, erabat erdaldunak dira.

Oñatin jaio eta Gasteiz, Bilbo, Londres eta New Yorken bizi ondoren, Oñatira bueltatu zara.

Banuen gogoia itzultzeko. Nomadatxo bat dut barruan, aldatzera behartzen nauena. Gaur egun, Euskal Herria hiri handi bat da dagoneko, eta ordu bete behar da mutur batetik bestera joateko.

Zure azken diskoak *dabilen harria* izena du. Dabilen harriarekin identifikatzen al zara?

Axularrek esan zuen ekinaren poderioz, ibiliz, aurreratzen dela eta norberak markatzen duela datorrena.

Jakes Goikoetxea
Kazetaria

Aipatu eta aipamen

Gustura eta interes handiz irakurri dut harpidedun eta oso tartekako kolaboratzaile nauen aldizkari honen urriko aleko zenbait atal. Horien artean, “Atsedunik EZ drogarik gabe” afera haren inguruko gutuna (Pello Goikoetxeak sinatua) zein artikulua luzea (Edorta Españak idatzitua). Arazoaren berrikuste zabal argigarria iruditu zait IZOko itzultzailearen artikulua, zehaztu beharreko salbuespentxo pare bat salbu.

1. “Jatorrizko informazioa eman zuen egunkarira (DEIAra) jo nuen”, zioen Edortak. Normala izango da, noski, berak horren berririk ez izatea, baina DEIAan agerturiko zutabe euskarazko hori aste bete lehenago aterea zen *El Correo* egunkariaren Arabako edizioan. Hurrengo asteko zutabean honela adierazi nuen gertatua, aipuaren luzea zilegi bazait:

“Nola sortzen da albiste bat? Nola hedatzen da? Zenbat denbora behar dute gaur eguneko hedabideek berri bat zabaltzeko, eta haren gaineko iritziak biltzeko? Nork erabakitzen du notiziak garrantzirik duen ala ez, eta zenbateko leku-denborak izan behar dituen albistegietan? Zer eragin ote dauka albisteari lehen iturrian emandako tratamenduak? Nola baldintzatzen du berria hizkuntza batean edo bestean zabaltzeak? (...) Abuztua aro gaiztoa da kazetariarentzat: berri eskasia, bekadun andana, plantilak labur. Erbia eraikitzeko momentuan (guk euli-kaka zela uste genuen, potoloa, baina euli-kaka), kezka erabili genuen zernolako jitea emango ote zioten albisteari,

litekeena baitzen norbaitek kontuari buelta eman eta errua euskarari berari leporatzea. Euskarazko egunkari bakarrak astebete lehenago jaso zuen aferaren aipamen bat, eta halatsu *itzul* posta-zerrendako harpidedun guztiek, eta *hamaika* izeneko web orriko buzoiak, hilaren 17a aldera. Berriak ez zuen zirkinik eragin. Egunkari honetako Arabako edizioan atera zen, euskara hutsean, “Mi(ni)sterioa” izenburuko zutabea, hilaren 23an. Bat ere ez. Kazeta (teorian behintzat) euskaltzale batek atera zuen azkenean, gaztelaniaz, 25ean. Biharamunetik aurrerakoa badakizue (ia) guztiek”.

2. Litekeena da formulazioa behar bezain gardena ez izatea, baina oso harriturik utzi nau jakiteak nola ulertu zuen Edortak lehen zutabe horretako azken esaldia. “*Funtzionari itzultzaile-edo amateurren batek lepoaren bueltan ibiliko ditu atzamarrrak*” idatzi nuelarik, ez nuen inondik inora inolako asmorik “administrazioan gabiltzan itzultzaileak” barregarri uzteko. Nik funtzionari (bakar) **bat** bainuen buruan, eta ez itzultzailea hain zuzen: **itzultzaile ez izanik**, halako lan baterako profesionali deitu beharrean, amateurkerian ibili zen, edo inori ibiliarazi zion hori. Garai horretan, gainera, zer diren gauzak, neroni ere administrazioan ari nintzen lanean... itzultzaile!

Azkenik, Edorta, lankide estimagarri hori: ez dakit, zinez, izena handia ala txikia dudan; baina, izan, badut izena.

Gerardo Markuleta

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

✉ interinez@mindless.com



Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahalko du sail honetan bertan.

Berrikusteko errekurtsua

Administrazio bidean daukagun errekurtsu bi aipatu dugu aurreko zenbakietan: gora jotzeko errekurtsua eta berraztertzea. Horietaz gain, hirugarren errekurtsu-mota bat jasotzen du legeak: berrikusteko errekurtsua. Egia esateko, gutxitan ikusiko dugu hirugarren hau, kasu jakin batzuetan bakarrik erabil daitekeelako. Edozein kasutan ere, hementxe daukazue, bilduma osatzeko.

Nori:.....

.....

BERRIKUSTEKO ERREKURTSOA

ERREKURTSO-EGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak:

Nortasun-agiria:

Helbidea:

Telefonoa:

ZEIN EBAZPENEN AURKA

Bere garaian ebazpen honen berri izan nuen:

Ebazpenaren ezaugarriak

Noizkoa:

Organo erabakitzailea:

Erabakitakoa:

Espediente-zenbakia (*hala badagokio*):

Baditut alegazioak ebazpen horren aurka jotzeko; hain zuzen ere, ondoren adierazten ditudanak:

ALEGAZIOAK

Lehena

.....

Bigarrena

.....

Hirugarrena

.....

Alegazio horiek 30/1992 Legean¹ (118. artikuluan) ezarritako lau baldintza horietako batean oinarritzen dira; hain zuzen ere, hauetako batean²:

- Egintzak ematerakoan egiteko errakuntzaren bat izan, eta espedienteari erantsitako agiriak ikusita jabetzea.
- Gaia ebazteko funtsezko agiriak agertzea, ebazpenaren ondoren izan arren, eta agiri horiek errekurtsua jarri zaion ebazpenean akatsen bat badagoela agerian jartzea.
- Ebazpena ematerakoan funtsezko eragina izan duten zenbait agiri edo lekukotasun, epai irmo batek, ebazpenaren aurretik edo ondoren, faltsuak direla adieraztea.
- Prebarikazio, funtzionario-eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo bestelako jokabide zigorgarri baten ondorioz ematea ebazpena, eta epai irmo batek hala aitortzea.

ESKARIA

Horrenbestez, 30/1992 Legearen¹ arabera (118. artikulua), berrikusteko errekurtsu hau aurkezten diot ebazpena eman zuen organoari, agiri honetan adierazitakoa onartzeko, eta, horren ondorioz, aurka egindako ebazpena *deuseztatzeko/era honetara aldatzeko*:

.....

.....(e)koaren(a)

Izenpea

Izen-abizenak

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

² Ipini gurutzea dagokion laukian.

Oharra: inprimaki hau eta beste batzuk liburu honetan bildu ditu HAEEK orain dela gutxi: *Administrazio eta Prozedura Legea (30/1992) eta inprimaki-ereduak*.

IRALE-REN GOI-MAILAKO IKASTARO ESKAINTZA

Badira zenbait urte unibertsitateaz kanpoko irakasleak euskalduntzeari eta alfabetatzeari ekin ziola Hezkuntza Sailak IRALE programaren bidez. Urteotan zehar, beraz, xede horri eutsiz, ikastaro ugari eskaini dizkio IRALEk irakastegi propioen bidez nahiz kanpo-euskaltegien bidez irakasle-jendeari.

Gaur egun aukeran ematen diren ikastaro guztiak, hala ere, ez dira juxtu-juxtu hasieratik martxan jarri ziren prestakuntza-ikastaro berberak. Unean uneko beharrek hala eskatuta, ikastaro-eskaintza egokitzen saiatu baita IRALE urtero-urtero. Nolanahi ere, oro har, arlo horretako aldaketa gehientsuenak azalekoak izan dira (ordu-kopurua, eskabideen tramitazio-moduaren zehaztapena... etab.), ez edukiari dagozkionak.

Azaleko edota sakoneko egokitzelan horren helburua, bestalde, ikasprozesuan arian-arian sortzen diren beharrei eta eskakizunei erantzutea da. Eskakizun horiek eragin dituzten arazoak, gainera, argiak izan dira IRALEn: alde batetik, parte-hartzaileen gorakada etengabea izan da irakastorduz kanpoko nahiz barneko ikastaroetan. Irakastorduz kanpokoetan, esaterako, erabakiorra izan da hizkuntz normalkuntzako proiektuetan parte hartzeko konpromisoa hartu duten ikastetxeen partaidetza handia. Izan ere, IRALE programaren bidez antolatutako ikastaroek hizkuntz normalkuntzaren proiektuetan murgildurik dabilzan ikastetxeetako irakasleak eta, maila txikiagoan, ez-irakasleak ere euskalduntzeko edota alfabetatzeko aukera ezin hobea eskaini dute.

Orain arte nagusiki euskalduntze-esparrua landu izan duten hainbat eta hainbat euskaltegien artean kezka sortu du eskaera horien ugaritasunak. Etorkizuna bermatzeko, euskalduntzea alde batera utzi gabe, alfabetatzeari eta goi-mailako hizkuntzari arreta handiagoa jartzea ezinbestekoa dutela ohartu baitira euskaltegietak irakasleak. Kontuak horrela, zenbait elkarrek eta euskaltegiak euskara-irakasleentzako nahiz euskal filologoentzako goi-mailako prestakuntza-ikastaroak gero eta maizago antolatzeari ekin diote.

Beste alde batetik, irakastordu barneko ikastaroetako bezeria-mota aldatzen ari da azken urteotan. Liberaziozko aukera hauetan ere, irakaskuntzako HE2tik gorako ikastaroak erruz eskatzen dituzte euskara landu edo hobetu nahi duten IRALEko ikasketariak. Beraz, kanpo-euskaltegietak irakasleak ez ezik, IRALEkoak ere euskara teknikoak lantzeko eta korpusean sakontzeko beharra lehen baino indar handiagoz hasi dira somatzen. Irakasleak euskara-maila teknikoago batean trebatzeko premiari erantzutearren, hortaz, R ikastaroak (goi-mailakoak) antolatzeari ekin zion IRALEk 1996-97 ikasturtean.

Hasiera batean, ikasketari-nahiak asignaturaka sailkatuz, hila-beteko eta bost hilabeteko ikastaroak antolatu ziren. Bi ikastaro-mota hauek ez ziren iraupen berekoak, ezta juxtu-juxtu jende-mota berdinentzat eratuak ere. Bien arteko desberdintasun nagusia ikasketariak euskaraz irakasten izandako eskarmentuan zetzan. Beraz, irakasle bakoitzaren esperientziak fin-

katzen zuen, besteren artean, nor zein ikastaro-motatan leku-tu. Hilabeteko ikastaroen iraupena, hala eta guztiz ere, eska-segia zen nonbait parte-hartzaileen iritzirako.

Aipatzekoa da, dena den, sarritan martxan jartzen diren esperientzia berriek aurreikusitako helburuak lortzeko baino, etorkizunerako oinarriak jartzeko balio izaten dutela gehienbat. Neurri batean, bederen, argigarria izan zen 1996-97 ikasturteko R ikastaroen antolaketa hura.


Geroztik, saio gehiago egin dira IRALEn R ikastaroa irakasle HE2dunen benetako premietara egokitzeko. Ikastaro hauek gaika antolatzeak, adibidez, neurri batean talde homogeenak osatzeko aukera emateaz gainera arlo bakoitzari dagozkion bestelako beharrek detektatzen ere lagundu du. Espezialitate desberdinetako ikasketarien asmoak ez dira beti bat etorri: hots, ez dute zehatz-mehatz eduki berak jorrazteko interes berdina adierazi. Zenbaitek

aski izan du hizkuntzaren gramatika edota arauak soilik lantzearekin. Beste zenbaiten (gehienek) eskaerak, ordea, beste bide batetik planteatu dira (metodologia, terminologia... etab.). Oro har, aldea somatu dute IRALEko irakasleek talde batetik bestera, eta, oraindik ere, R ikastaroaren definizio zehatzagoa eskuratu behar dela ikusi dute.

IRALEn bertan iradokizun berriak egin dira azken aldirian, goi-mailako ikastaro hauetan landu beharreko edukiak eta metodologia hobeto definitzeko. Batetik, talde homogeenak osatuko badira, HE2 eskuratua izanik, aurrerantzean euskaraz irakasten aritu direnak soilik onartu beharko dira IRALEko irakasleentz iritiz. Bestetik, bi ardatz nagusi bereizten dituzte hizkuntz-gaitasuna hobetzeko saio hauetarako: hizkuntzari zuzenean dagokion ardatza bata, eta ikasketari bakoitzaren arloko adierazpen-gaitasunari dagokiona bestea. Lehenengoari dagokionez, irakurketa- eta idazketa-arloa, mintzamina eta gramatika dira hizkuntza-alorrerako lan esparru konkretuak. Bigarren arloak, aldiz, ikasketariak beren gaiaren irakaskuntzan kalitatea hobetzea du helburu (etorkizunerako baliagarria izango zaien materiala prestatzea, aurrez daukatena txukuntzea, itzulpengintza lantzea, testu-liburuen azterketa egitea... etab.). Horretarako, gainera, ikastaro-emankizunetan ohiko ikastaroen dinamika jarraitu beharrean bestelako ereduak jartzea proposatzen dute: jakintzagaiak era praktikoan lantzea ezinbestekotzat jotzen da ikastaroetan, praktika hori trebetasun desberdinetan burutuz.

Garbi dago, beraz, R ikastaroak norentzat eta zertarako antolatu diren. Etorkizunean, gainera, IRALEk goi-mailari dagokion bide horri eutsi beharko diola bistan dago. Eskura dituen baliabide guztiak helburu horretara bideratu beharko ditu orain arte gehiago jorratutako beste esparruei muzin egin gabe. Hori du une honetan bere erronka: unean uneko bezeriari egokitzuz irakasleak euskara-maila egokia bermatzea.

Aitziber Larramendi
IRALEren arduraduna



Herioa eta maistra ohia

Herio Anderea ezari-ezarian sartu zen gela hartan. Eskuetan zeukan suzko txartelak zera zion:

Hirurogeita zortzi urteko emakumea. Maistra ohia. Alarguna. Seme-alabarik gabekoa. Otzana, tematia eta euskaltzalea. Bakarrik bizi da. Lan erraza.

Presaren zuten Herio Andereak eta kasuak zailtasunik gabekoa zirudiela ikusita amen batean prestatu zen bere eginkizuna betetzera. Halere, harrিতuta geratu zen andreari hurbildu zitzaionean: ohean zegoen, noski, baina liburu eta hiztegiez inguratuta. Zurbil zegoen, noski, baina arreta handiz aritzen zen koaderno batean izkiriartzen. Arnas-hartze nekosoaren zuten, noski, baina begi-ninien dirdirak bizitzaren indarra adierazten zuten... Bo, ez zen lehen aldian norbait gogoz kontra eramatea suertatzen zitzaioela, beraz, andrearen aurrean ipini zen ohiko formula erabiliz:

–Zure orduak jo du.

Maistra izan zenak bere koadernotik begiak altxa eta ez zuten inongo harridurazko imintziorik egin arnasa etetera zetorkion Herio Ahalguztidunaren aurrean...

–Ikusten dut, bai, nire bila etorri zarela Herio Anderea, eta prest naukazula esango nizuke esku artean dudana eginkizuna bukatuta izango banu. Hari fin-fin batek lotzen nau mundu honetara eta lokarri hori ebakitzeko zure laguntza ondo etorriko litzaidakeela aitortu behar dizut...

Herio Andreari ez zitzaion arraroa egin horrelako hizketaldia. Asko eta asko ziren bere azken laguntza eta kupida eskatzen zutenak... Erantzutera zihoala, zera bota zion tupustean maistra ohiak bere ohetik:

“Maistra izan zenak ez zuten inongo harridurazko imintziorik egin arnasa etetera zetorkion Herio Ahalguztidunaren aurrean”

– Galdera hauetatik zein da zuzena?
Gaur ez dago nor naizen ez dakienik
Gaur ez dago inor naizela ez dakienik
Gaur ez dago inor naizena ez dakienik
Gaur ez dago nor naizenik ez dakienik

Herio Andereak, kopeta zimurto eta lotsaren lotsaz, galdera errepikatze eskatu zion hiltzorian zegoenari...

–Ikusten? –jarraitu zuten maistra ohiak–. Ez da hain erraza.

Mila bider saiatu nintzen HE1 euskar-maila ateratzen eta inoiz ez nuen lortu, jubilatuta behar izan nuen euskara-titulua ziztrinik gabe eta beti, horrelako galdera maretzaileen-gatik!

Entzun, esaterako, honako hau eta esaidazu ditzosozko ariketa hauek nahasteko modukoak ez ote diren...

– Zein da zuzena?
brehala etorrarazi egin zion
brehala etorri arazi zion
brehala etorrarazi zuten
brehala eratorri zuten

Ordurako ezohiko desioa sentitzen hasia zen Herio Anderea Ahalguztidun alfabetatugabea, maistraren ondoan eseri eta koaderno horietako bat esku artean hartzearena:
– Etxerako lanak zorroan...
neramatzon
neramazan
ninderamatzan
neramatzan

Aurpegia argitu zitzaion Herio Andreari. Galdera bai erraza oraingo honetan, *neramatzan* zen erantzun zuzena. Ezbairik gabe. Eta hurrengo ariketak, nolakoak ziren?

Eta Herioak aldegin zuten beste egun batean jarraituko zutela esanaz.

Eta maistra ohia ariketak egiten aritu zen denbora luzez, harik eta egun batean EGA titulua lortu zuten arte.

Mariasun Landa
Idazlea



Mundua on line **Elhuyar hiztegia**

Elhuyar erakundeak bere hiztegi txikia (Euskara-Gaztelania/Gaztelania-Euskara) Interneten jarri du Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz. 1999ko azaroan hiztegi txikia jarri bazuten ere, 2000. urte hasieran bertsio handia jartzeko asmoa azaldu dute.

Hiztegiaren bilaketak bi erataria egin daitezke: sarreraka eta gaika, eta biak konbinatzeko aukera ere badago.

Erabiltzaileak abantaila ugari izango ditu beti ere: ordenagailutik sarrerak era erosoan kontsultatu eta inprimatzeko aukera izateaz gain, Interneten dagoen hiztegiak beti izango du paperezkoak baino gaurkotasun handiagoa. Eta gainera dohainik da.

Hiztegi gomendagarri hau www.elhuyar.com/hiztegia helbidean aurki daiteke.

Luis Elizondo
luis-elizondo@ivap.es

EAEko lan egutegia 2000. urterako

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren uztailaren 27ko 304/1999 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2000. urteko jaiegunen egutegia honako hau izango da:

- Urtarrilak 1, Urteberri eguna.
- Urtarrilak 6, Errege eguna.
- Apirilak 20, Ostegun Santua.
- Apirilak 21, Ostiral Santua.
- Apirilak 24, Bazko Astelehena.
- Maiatzak 1, Langileen eguna.
- Uztailak 25, Santiago eguna.
- Abuztuak 15, Ama Birjinaren Jasokundearen eguna.
- Urriak 12, Espainiako Festa Nazionala.
- Azaroak 1, Domu Santu eguna.
- Abenduak 6, Espainiako Konstituzioaren eguna.
- Abenduak 8, Ama Birjina Sortzez Garbiaren eguna.
- Abenduak 25, Eguberri eguna.
- Apirilaren 20a (Ostegun Santua) errekuperatu beharrekoa izango da.

Office 2000 euskaraz

Eusko Jaurlaritzak, eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko diputazioek maitatzen Microsoft-ekin sinatutako akordioaren ondorioz, kalean da Office 2000 informatika sortaren euskarazko bertsioa. Office 2000k lau programa ditu: Excel 2000, Word 2000, Outlook 2000 eta Power Point (gaztelaniaz). Programa horietaz gain, euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko zuzentzaile ortografikoak eskaintzen dira, eta baita internet Explorer 5 nabigatzailea eta Outlook Express 5 ere.

Eusko Jaurlaritzak eta Quebecoko Gobernuak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute

Abenduaren 3an, Euskararen egunean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Quebecoko Gobernuak hizkuntza gaietarako lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmenak sei arlotan izango du eragina. Hona hemen: toponimia, enpresetako lan-hizkuntzaren normalizazioa, hizkuntz plangintzaren azterketa erkatua, terminologia, erabilera berezietako hizkuntz prestakuntza eta etorkinen hizkuntz prestakuntza, eta frantsesaren eta euskararen erabilera teknologia berrietan.

Ordenagailuek euskarazko ahotsa ezagutuko dute

Ordenagailuek euskarazko ahotsa ezagutzeko sistema aurkeztu berri dute Telefonikak, EITBk, EHUK eta UZEIk, bi urtez elkarlanean jardun ondoren. Sistema berri horrek laster izango du eragina kalean. Horren bidez, dagoeneko telefonoz kontsulta daiteke telefonoaren kontsumoa. Gerora, eta besteak beste, telefono zenbakiak automatikoki markatu ahal izango dira, eta aginduak ahotsez eman ere; esate baterako, posta elektronikoa jasotako mezuak telefonoz entzun ahalko ditugu, posta elektronikoa bidali, eta abar.

Tipikoa ala topikoa?

Mahai antolatu berriari begiratu zion Idazleak. Dena prest zegoen: zirriborroak idazteko fitxak, idazlumak, teklatua, ordenagailuaren pantaila behin eta berriro garbitua... Dena. Bai eta Idazle Handiaren Esku Liburua bera ere: IHEL. Atea ere itxita zegoen, oso garrantzitsua baitzen une erabakior hartan bakardadean jardutea, inolako trabarik gabe. Aulkian jarri eta mahaira hurreratu zen, piztu gabeko zigarroa ahoan zuela. Prest zegoen.

IHELeak mailakaturiko pausu hutsezinei jarraiki ekin zion lanari. Lehendabizi, istorio hartako protagonistak irudikatu behar zituen Idazleak. Bi pertsonaia sortu zituen: FC eta IA funtzionario ustez eredugarriak. Gustura gelditu zen, pertsonaia sinesgarriak zirelako, langileak, desberdinak eta igoalak aldi berean, euren lanari guztiz emanak. Ondoren, pertsonaia horientzako abenturen ildo nagusiak irudikatzen hasi zen, datu gehiegi eman barik ere, IHELeak zioen bezala, ildo nagusiak emateak ez baitu esan nahi soka motzean lotu behar denik idazlea. Libro utzi behar da, argumentuaren luze-laburrean jolasteko aukerarik izan dezan. Harro zegoen Idazlea, den-dena aurrez pentsaturiko moldean baitzihotan. Bi multzotan banatu zituen fitxok. Batean, pertsonaiei buruzkoak; bestean, X deituriko tokian izandako jazoerak.

Ordenagailua piztu eta tekleatzen hasteko zorian zegoela, ondoeza nabaritu zuen sabel azpian. Ohiturik zegoen horrelako min zitzadekin, zer edo zer txarto egiten ziharduela adierazten zioten seinaleak ziren, barne senak bidaltzen zizkion mezu mingarriak bezain argigarriak. Pentsakor gelditu zen, ordu arte emandako pausuak banan-banan berriz aztertzen, non edo non egindako hutsunea bilatzen. Pertsonaien profilak ondo diseinaturik zeudela egiaztatu zuen; asmaturiko jazoerak edo abenturak ere behar baino gehiago ziren, idazleak bere kasa ibiltzeko behar zuen beste, alegia. Non zegoen akatsa?

FC eta IAren deskribapenei berriro ere erreparatu zien. Jakina! Zelan ez zen lehenago ohartu? Nola ekin pertsonaiak sortzeari, literaturako idazle handiek, urteak joan urteak etorri finkaturiko profilak aztertu barik? Horixe zen-eta Idazle Handiaren Esku Liburuak ezartzen zuen hirugarren pausua, inondik inora saihestezina zena. Zutundu, armairuan txukuntxukun antolaturiko fitxak atera eta F hizkia bilatu zuen: fabula, fartsa, Faulkner, Ferlosio, festa, fobiak, folklorea, foruak, FUNTZIONARIOA! Funtzionarioa1, Funtzionarioa2, Funtzionarioa3,... Funtzionarioa11. Ene, pentsatu zuen, zenbat gauza idatzi diren funtzionarioen gainean! Bazuen zer ikasi, inondik ere. Fitxak banan-banan aztertu zituen, Euskal Literaturako Handiek (ELHA), harrezkero, funtzionarioaren ezaugarri literarioak ondo zehazturik izango zituztelakoan. Hiru profil nagusitu ziren, funtzionario fin-finaren ezaugarrien arabera.

Lehenik, AE eta IA idazle handiei jarraiki, lan orduak bestelako gauzak egiteko, literatur kontuak, esaterako, baliatzen dituen funtzionarioa zegoen. Administrazioaren lan eskasari

eta potro jorran ibiltzeko aukerari esker, bestelako denbora pasak bilatzen dituen ohiko funtzionarioa, alegia.

Bigarrenik, JAren hitzetan, bizimodu erosoan eraman eta diruduna eta koipetsua den funtzionarioa zegoen: funtzionarioa izateak ematen duen bizimailari esker, harro dabilen alferrontzia, hain zuzen ere.

Hirugarrenik, HEren eskutik, funtzionario guztiz erdalduna topatu zuen, euskara ikasteko inolako ahaleginik egiten ez duen nagi alaena. Edota, IMren emakume hark bezala, euskara ikasi eta ikasi arren, administrazioan horren gaizki egiten diren itzulpenak sekula ulertuko ez dituen funtzionario ezjakituna.

Etsita zegoen Idazlea. ELHAtik ateratako profil horien artean, ez baitzegoen berak sorturiko pertsonaien antzik zuenik. Nork sinestu behar zuen, horretara, behinola erabileraren erabileraz guztiz hondaturik zeuden komunetan lanean ibilitako haiek funtzionarioak zirela? Alegia, IAk eta FCk, sabelaren behe-behetik zetorkien goragaleari aurre eginez, eskua sartu eta han trabaturiko giza hondakinetan ibili eta ibili ostean, tutuak-eta libratu zituztenekoa ez zen sinesgarria, inondik inora. Edo, zeinek sinestu behar zuen, behin batean, bide elurtu berriak begi aurrean, pala xume bat harturik, eta bestelako ekipamendurik gabe, X izeneko lantoki hartara daramaten bideak garbitzen ziharduten haiek funtzionarioak zirela?

Banan-banan hartu zituen fitxok Idazleak, eta banan-banan bota zituen mahai ondoan zeukan paperontzira. Sinesgaitza baitzen oso, behin baino gehiagotan X izeneko lantoki hartako hormak mailuka botatzen, hautsa sudur zuloetatik etengabe sartzen zitzaielarik, ibilitako haiek funtzionarioak izan zitezkeela, ez baitzetozen bat urtez urte finkaturiko funtzionario fin-finaren profil haiek. Eta sinesgaitzagoa zen, are gehiago, behinola, uriolak kausa, X izeneko kiroldegian sarturiko ura ateratzeko, lan ordutik kanpo lantokira joan eta ura kaleratu nahian jo eta ke ibili ziren beste haiena.

Alferrik jardun zuen Idazleak, lehenago irudikaturiko jazoeira eta funtzionario ezaugarrietan, ELHaren barruan biltzen zirenek hain maisuki deskribaturiko funtzionario tipikoaren parekorik bilatzen. Alferrik. Horiek horrela, ohar labur bat idatzi zuen bere ordenagailuan, egun batzuk lehenago ipuintxo eskatu zionari zuzendua: "Barkatu, baina ez naiz gai funtzionario tipikoari buruzko istoriatxo bat idazteko." Eta bidali egin zuen, bere ezinean.

Egunak joan egunak etorri, eta zapore mingotsa utziriko gertaera haren bueltan jarduten zuen Idazleak, txitean-pitean. Baina, egon zegoen burua urratzen zion jazoera xeble bat, eta Idazlea ez zen gai ordenagailuaren tema hura ulertzeko, alegia, Idazleak **funtzionario tipikoa** idazten zuen bakoitzean, ordenagailuaren ortografia zuzentzailea aktibatuta eta zuzendu egiten zion azken hitz hura, haren partez TOPIKOA idatziz.

Iñaki Frieria
Idazlea

Joshua A. Fishman:

“Bi hizkuntza inoiz ez dira egongo oreka osoan komunitate bakarrean”



Joshua A. Fishman 1926. urtean jaio zen Philadelphian. 1953an Columbia Unibertsitatean doktortatu zen gizarte-psikologian. Klaseak eta hitzaldiak emandakoa da munduko ikastetxe nagusietan, eta gaur egun soziolinguistikaren aitalehentzat hartzen dute adituek. Yeshiva Unibertsitateko irakasle emeritua izateaz gain, New York eta Stanford unibertsitateetako irakasle bisitariaria dugu Fishman jauna. Urte hauetan zortziehun artikulua eta liburu baino gehiago idatzi ditu, horien artean ezagunenak: *Some contrasts between linguistically homogenous and linguistically heterogenous polities* (1968), *Sociology of language* (1971), *English Only: Its ghosts, myths and dangers* (1988), *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective* (1989) eta *Reversing language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages* (1991). Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak Bilbon antolatu berri duen nazioarteko biltzarrera osasun arazoak direla-eta ez du etortzerik izan, baina, zorionez, elkarrizketa egite-rakoan esan digunez, bere osasunak hobera egin du. Bide batez, aukera hau aprobetxatu nahi izan du euskaldunoi, eta gure irakurleei bereziki, 2000. urte zorionsua opatzeko. Hala bedi!

HIZKUNTZAK BIZIBERRITZEA

Badakigu lanez gainezka zabiltzala beti, baina zertan aritu zara azken bolada honetan?

Une honetan 1991n idatzi nuen liburu baten bertsioa amaitzen ari naiz: *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages* (Hizkuntzak biziberritzea: mehatxupeko hizkuntzak sustatzeko teoria eta praktika). Bertsio zaharrean 12 kasu besterik ez nuen aztertu, baina oraingo honetan beste sei kasu gehitzeko asmoa daukat, Afrika, Asia eta Hegoamerikako kasuak, hain zuzen ere, bertako adituek idatzita. Ni neu, neurea idazteaz gain –yiddish-ari buruzkoa–, sarreraz eta amaierako ondorioez arduratuko naiz. Oso interesgarria iruditzen zait azter-tzea zein bilakaera izan duen azken hamarkadan hizkuntzak biziberritzeko teoriak (RLS), eta, bide batez, 1991ko liburuan deskribatzen nituen egoerek onera edo txarrerara egin duten. Urteotan aditu askok egin dute gogoeta nire teoriari buruz, praktikan jartzen saiatu dira, eta baita iruzkinak plazaratu ere, eta horrek guzti horrek biziki pozten nau. Liburu berria ez da izango aurrekoa bezain biribila, izan ere, kontuan hartu behar

da 18 adituk parte hartuko dutela eta bakoitzak bere ikuspuntua eta estiloa duela; baina, dudarik gabe, mundu osoan RLS sistema ikasten dihardutenentzat eta abian jartzen ahalegintzen direnentzat oso interes handikoa izango da. *Can threatened languages be saved?* liburu hau 2000. urtean argitaratuko da.

Bitartean, 1991ko bertsioaren gaztelarazko eta frantseserazko argitalpenak prestatzen ari naiz, hizkuntzak biziberritzeko sistema (RLS) jende gehiagori eza-gutarazteko. Une honetan itzulpen egokiak egiteko prest egon daitezkeen eremu urriko hizkuntzetako ikasle edo militanteen bila nabil.

Elkarrizketa batean duela gutxi esan zenuen moduan, “ama-hizkuntzek hizkuntza-talde baten nortasuna, osotasuna eta etorkizuna bermatzen dituzte”. Zer gertatzen da hizkuntza-talde hori beste estatu baten barnean badago eta bi nortasunen arteko lehia gertatzen bada? Nortasun bat sendotzeak bestearen gutxiestea al dakar ezinbestean?

Gatazkatsuak baino, sinkretistak izan daitezke nortasunak, hau da, osagarri ezberdinak elkartu egin ditzakete, kontrajarri baino. Giza nortasunen zerrenda oso konplexua da, eta horre-

“Ama-hizkuntzarekin batera berez geureganatzen ditugu folklorea, umorea, pentsakera eta bizitza ikusteko modu bat”

la, gizabanako gehienek badauzkate sexu, familia, toki, eskualde, nazio, lanbide, politika eta beste zenbait nortasun. Nortasun etnikoak ere maiz sinkretistak izaten dira; ikusi, adibidez, Finlandiako suediarrek, Israelgo armeniarrek, Malaysiako txinatarrek, Sumatrako indonesiarrek etab. Estatu moderno gehienek "hiri-nazionalismoa" deritzogun nortasun bat garatzen dute, hiritar guztiek elkarrekin sentitu dezaketena, baita konbinatu ere beste nortasun batzuekin (tokian tokikoak, eskualdekoak etab.). Nortasun komun horretako osagarrien arteko gatazka gertatzen bada, gizabanakoak batera ala bestera lerratuko dira, euren lehen-tasunen arabera. Nolanahi ere, estatu moderno gehienek integrazioa jotzen dute, eta egonkortasuna izanez gero, sinkretismoa eta nortasun konplexuak gailentzen dira. Hori ez da bakarrik Estatu Batuetako etorkinen edo gutxiengoaren nortasun eredu edo jarraibidea, eredu orokorra baizik. Gero eta zabalduago dago mende-baleko kontsumo-kultura, gero eta handiagoak dira hedabideak, baita ekonomien arteko loturak ere; gauzak horrela, nortasun orokorra zabaltzen doan heinean, gizarte eta bizimodu modernoaren nortasun egitura sinkretistaren parte izatera ere iritsiko da.

Eskola berez ez omen da nahikoa hizkuntza baten irakas-kuntza bermatzeko; horretaz gain, beharrezkoa omen da inguruaren laguntza (komunitatea, familia, eliza...). Zein da, orduan, eskolaren benetako garrantzia eta zeregina hizkuntza bat biziberritzean?

Eskola kultur euskarri bat da ikaslea gizarteratzeko. Euskarri hori hizkuntza aldaera idatzietan eta ahozko maila jasoan oinarritzen da, eta aldaera horietako trebetasunak eta gaitasunak jorratzen ditu bereziki. Baina, hala ere, hizkuntza jokabide gehienak ez dira aldaera formal horietara mugatzen. Garbi dago eskolak ezin duela bere gain hartu berari ez dagozkion aldaera funtzionalen sustapena, hala nola, izpiritu, bihotz eta intimitatearen esparruetakoak. Horregatik, hizkuntza batzuek bizirik irauteko, behar-beharrezkoa dute euren erabilera areagotzea, bai eskolara joan aurretik bai eskolaz kanpo bai eskola garaia bukatu ondoren ere,

HIZKUNTZA ETA KULTURA

Duela gutxi esan zenuen "hizkuntzaren iraupena eta nortasun etnokulturala elkarri lotuta daudela". Hortik atera al daiteke hizkuntza bat berreskuratzearen alde dagoen orok aldeaz aurretik ados egon behar duela nortasun horrekin?

Hizkuntza guztiek balio bikoitza dute: tokian tokikoa eta unibertsala. Komunitate batera kanpotik heltzen denak bertako hizkuntza ikasi eta maite dezake, bai, baina bere nortasunaren bigarren mailako osagarritzat hartuko du hizkuntza hori beti. Berta-koentzat, ordea, nortasunaren ardatza da hizkuntza, beren etniarekin identifikatzen dute eta kanpokoek izan dezaketena beste edozein balio unibertsalen aurretik jartzen dute. Talde horretatik kanpo dagoenak beste hizkuntza asko ere ikas ditzake hainbat arrazoi eta helburu direla, baina hizkuntza horietatik guztietatik bakar batekiko ere ez du erantzukizun sakonik sentituko (bere

ama-hizkuntza alde batera utzita, noski), eta erraz asko utzi eta ordezkatu egingo du. Historia eta kultura betidanik hizkuntza jakin bati loturik izan dituen talde etnikoarentzat izango da bakar-bakarrik hizkuntza hori aukera objektiboa baino zerbait gehiago: taldearen ondarea, taldeko harremanak, portaerak, sinesmenak eta leialtasunak biltzen dituen.

Behin baino gehiagotan adierazi duzu kultur demokrazia behar dugula. Demokrazia hori badatorrela uste al duzu? Hizkuntza handiek onartuko al dute?

Nahiz eta faxismoaren eta komunismoaren garaian atzera pausoak izan, nik uste dut XX. mende honen amaieran mendearen hasieran baino kultur demokrazia handiagoa daukagula. Globalizazioak aurrera egiten duen neurrian, kultur demokraziaren beharra, eskaera, nahia eta haren aldeko ekimenak gero eta zabalagoak izango dira mundu osoan, eta are gehiago, une honetan gutxiutuak ez diren hizkuntzak sistema globalaren eraginez hizkuntza gutxiutuak bilakatzen doazen heinean. Europako

Batasunari begiratzen badiogu, gutxiengoek eta gehiengoek antzeko ezaugarri gehiago dituzte orain, Batasuna sortu aurretik baino. Joera horrek gora egingo du nabarmen globalizazioarekin batera, jakina. Etorkizunean inor ezin- godo da bere baitan bildu, uharte bilakatu eta gainontzekoei bizkarra eman; aitzitik, mundu zabaleko talde guztiekin izan behar ditugu harremanak, hori bai, talde horiek euren nortasunari eusteko duten nahia errespetaturik.

Zenbaiten ustez bigarren hizkuntza bat ikastea, ama-hizkuntzak nolabaiteko galera pairatzen du. Zer deritzozu horri?

Ez nago ados; alde askotatik begiratuta, bigarren hizkuntza bat ikasteak areagotu egiten ditu ama hizkuntzarekiko sentimenduak eta baita indartu ere lehen hizkuntza horren berezitasuna. Kultur hedabidea da hizkuntza. Ama-hizkuntza ikasten dugunean hizkuntzarekin batera berez geureganatzen ditugu folklorea, umorea, pentsakera eta bizitza ikusteko modu bat, automatikoki, ia konturatu gabe. Bigarren hizkuntza ikasterakoan, ordea, oso arraroa da neurri berean barneratzea hizkuntza horri lotutako kultur eta gizarte ezaugarri horiek. Edonola ere, bigarren hizkuntza bat ikastea ez dago galtzailerik, hizkuntza bietan ateratzen baikara garaile; eta, gainera, askotan bigarren hizkuntza hori akuilu izaten da ama-hizkuntzan trebatzeko eta berarenganako maitasuna sendotzeko.

Bizi al daitezke bi hizkuntza lurralde batean bietariko batek kalterik jasan gabe? Orekari eusterik bai?

Komunitate batean bi hizkuntza dagoenean ezin da horien artean erabateko orekarik izan. Biek funtzio ezberdinak dituzte; izan ere, ez dago komunitaterik funtzio multzo bera adierazteko hizkuntza bi erabiltzen dituenik. Horiek horrela, funtzio batzuk (merkatari-tza, komunikabideak...) bi hizkuntzetan betetzen badira ere, gainerako funtzioetan, aldiz, hizkuntza bat ala bestea nagusitzen da. Funtzioak bereizita eta sailka banatuta bermatzen da hizkuntza bakoitzaren zilegitasuna eta justifikazioa.

Hitz-sorkuntzako uste ustelak (I)

Gaur egungo gizartearen konplexutasunak eskatzen dituen ñabardurak adierazteko euskaraz erabili izan ditugun hitzek ez dutela balio, gehiegitan entzun dugu. Euskaraz arruntean erabiltzen ditugun hitzak bizitza modernoaren premietarako ez direla gai, orokorrekiak, anbiguoak eta zehaztasunik gabekoak omen direlako, kontzeptu berri eta zehatzak bereizteko joko nahikoa ematen ez digutelako, eta, horregatik, baztertu behar ditugula esan eta idatzi ere egin izan da. Plazido Muxikaren hiztegian agertzen diren euskal ordainez esan izan da hiztegi elebiduna baino sinonimo-hiztegia dirudiela, batere zehaztasunik gabea, eta euskarazko baliokide horiek baliogabetuta daudela egin behar diren bereizkuntzak egiteko.

Egia da, alde batetik, zientziako eta teknikako gaiak, baita administrazioko eta zuzenbidekoak ere, euskaraz erabili ez direnez, edo gutxi erabili izan direnez, arlo horietako terminologiarik ez dugula izan, eta, zenbaitetan, oraindik ere ez daukagula, behar bezain finkatua, behintzat. Egia da, bestetik, hiru sinonimo-hiztegi, braust, kaleratu zaizkigun honetan, Plazidorena izan zela, nahi gabe beharbada, horien aurrekoaren aurretik, euskarazko lehena. Baina horrek, bestalde, ez du inola ere esan nahi itxurazko euskal sinonimo horiek, hizkera arruntean sinonimotzat jo ditzakegun arren, hizkera teknikoan bereiztu behar dena bereizteko balio ez digutenik. Aitzitik, horixe da hizkuntza osasuntsuetan egiten dena: lehenengo eta behin norberaren baliabideekin moldatzen saiatu, hitz arruntek hizkera espezializatuan esanahi bereziak harturik.

Formaren morroi

Euskal hitzei leporatzen zaien beste erru bat izan ohi da orokorrekiak direla, hau da, generikoak direla, eta, horregatik, mota bereko gauza ezberdin zehatzak bereizteko ez dutela balio. Hizkuntza anglogermanikoetan generikoetarako duten zailtasuna guk espezifikotarako daukagu, nonbait. Erraz ikusiko dugu hori ez dela hala, izatekotan ere alderantziz, baina, azkenean, hizkuntza-eredua da atzean dagoena, ez zehaztasuna; terminologia konbentzioz, adostutako erabaki arbitrarioz, konforme paratuta finkatzen baita. Euskarazko ordaina aukeratzekoan, hitz-hautapena egiterakoan, euskaratik abiatuta jokatu behar dugu, ordea, ordain egokia eta txukuna baliatuz. Egokitasuna eta txukuntasuna hizkuntza erabiltzean kontuan hartu behar diren tasunak dira, zuzentasunaz eta zehaztasunaz gain.

Baina, kontzeptu berrien euskal ordainak ematerakoan ideia edo gauza hori ekarri digun hizkuntzak emandako izendapenaren morroi jokatzeko dugu; edukiari begiratu eta beregain jokatu beharrean, delako hizkuntza horrek eman dion izenari begiratzen diogu zorrotz-zorrotz. Gainera, kontzeptua ekarri digun hizkuntza gaztelania izaten da, eskuarki, eta oso gutxitan izaten da gaztelania kontzeptua sortu duena. Izendapenarekiko morroitz nabarmena izaten da, esate baterako, osagai bat baino gehiago daukanean jatorrizko hizkuntzan, hau da, hitz bakarra bada, hitz batean eman arte ez dugu etsiko, hitz bi badauzka, ordea, bi hitzetan emango dugu, lasai-lasai.

Zentritisa

Esate baterako, garai bateko *ambulatorioei* *osasan-zentrua jarri zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan. Ez dezagun pentsa izena euskaraz jarri zietenik. Gaztelaniaz *centro de salud* ipini zitzaenez, euskarazko ekuazioa: [centro = *zentru] + [salud = osasun] => *osasan-zentrua. Orain zentroa da: zuzen, baina ez txukun. Zer erru daukan *etxeak osasan-etxea* ez egiteko? *Centro eta casa* hitz diferentek direla, noski, esango digute. Ez dugu ikusi nahi izendapen horren atzean dagoena zer den. Gaztelaniaz jarri duten hitza (forma) itzultzen ari gara eta kitto. Nafarroan, aitzitik, gaztelaniaz izen bera izan arren, *osasan-etxea* da euskaraz: zuzen, eta, gainera, txukun. *Zentrutik *zentrorra* aldatzen hasita, Nafarroarekin batasuna egiteko abagunea aprobeixatu balute, behintzat.

Osasun-etxeetako kartel guztiak aldatzea gastu handia dela? Bokal-aldaketa merkeagoa dela? Orain dauden kartelak zaharraren zaharraz higitu eta jausi arte ez dezala inork espe-ro izen-aldaketa gauzatuko denik. Beraz, kalterik ez legoke, Nafarroarekin batasuna eginez, gure *osasan-zentrua *osasan-etxea* egingo bagenu, bai, ordea, onura.

Zentritisa (edozer da zentroa gaur egun) Ameriketatik (*center*) etorri zaigu gaztelaniaren bitartez (*centro*), eta guk, zehaztasunaren izenean, geureganatu egin dugu *zentro* berbaren premia faltsua, kontsumismoak sortzen dizkigun beste mila premia faltsu bezala; baina edozeri esaten bazaio zentro, non dago *zentro* hitzaren zehaztasuna; zer da zentro bat, alegia? Labur esanda, zerbaiteko edo zerbaiten egoitza, besterik ez. Hori esateko, ez daukagu hitz berri horren beharrik. Beste kontu bat da geometriari erabiltzen den zentroa edo erdigunea, baina hori, itxuraz hitz bera izanagatik, beste berba bat da, orain darabilgunarekin batere zerikusirik ez daukana.

Esan dugun esanahiarekin, beraz, gaztelaniazko *centro* asko eta asko etxeak dira euskaraz, hain zuzen ere: *centro cultural* kultura-etxea, *centro escolar* ikastetxea, *centro penitenciario* espetxea, *centro de salud* Nafarroako osasan-etxea... (kontura gaitzean gaztelaniaz bizpahiru hitz dauden lekuan euskaraz bat edo bi daudela), baina baita ere *centro de estudios* ikastegia, *centro de investigación* ikertegia, *centro hospitalario* ospitalea, *centro social* biltokia, *centro comercial* merkataritza-gunea... eta *centro urbano* hirigunea, *centro de la ciudad* erdialdea eta abar (azken biak erdigunearen esanguratik hurrago).


Horra, bada, hitz-sorkuntzan gabiltzanean erasotzen diguten uste usteletako bat. Centro de salud, esaterako, itzultzen dugunean ez gabiltza hiru hitz euskaratzen, 'herritarrei medikuaren kanpo-kontsultak eta antzeko osasun-zerbitzuak eskaintzeko beren herrian –edo eskualdean, ahalik eta hurbilen–, osasun-administrazioak ipinitako egoitza' (balio beza gure artean ulertzeko definizio gisa) edo dena delako hori euskaraz adierazten baino, eta, horregatik, beste hizkuntzan emandako izenari gehiegi begiratu barik jokatu behar dugu. Hitz-sorkuntza ez da, bada, gaztelaniazko hitzak euskaraz ematea, hor gizartearen dauzkagun kontzeptuak –gauzak nahiz ideiak– euskaraz ematea baizik.

Jon Agirre

Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko burua

Hizkuntza gutxiak biziberritzeko ahaleginetan

“Hizkuntza Biziberritzeko Saioak” izenpean, Eremu Urriko Hizkuntzei Buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra egin zen Bilbon abenduaren hasieran, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatuz. Hiru egunez, mundu osoko lauhun bat aditu bildu ziren Euskalduna Jauregira hamaika hitzaldi eta eztabaidatan parte hartzeko. Gu aukeraz baliatu gara Jean-Claude Corbeil, Richard Bourhis, Lluís Jou, Colin H. Williams eta Durk Gorter-ekin hitz egiteko. Besteak beste, galesera, katalanera, frisiera eta Quebec-eko frantsesaren zenbait arazo, ingelesaren nagusitasuna lan-munduan, estatuen jarrerak hizkuntza gutxitueki-ko edo Eusko Jaurlaritzaren eta Quebec-eko Gobernuaren artean arestian sinatutako elkarlanerako hitzarmena azaldu zaizkigu elkarrizketara.



Richard Bourhis,
Quebec-eko Unibertsitateko irakaslea

“Gure hizkuntz politikak baztertu egiten du asimilazioa”

Azken 10-15 urteotako hizkuntz politikari erreparatu badiogu, geure buruari galde-tu beharko genioke zer gertatzen den Quebec-eko frantseseko hezkuntza sistemara sartzen diren kanpotarrek. Behar den moduan ikasten al dute frantsesa? Noiz erabiltzen dute frantsesa? Orain dela gutxi egindako ikerketa batzuek argi erakusten dute Quebecera herri askotatik etortzen diren atzerritarrek frantsesa ikasi ez ezik, erabili ere erabiltzen dutela eskolako jolastokietan, pasiloetan, eta abarretan; Quebec-eko hizkuntz politika egokiaren adierazle, dudarik gabe.

Bestetik, orain dela gutxi Frantsesaren Kontseiluak ikerketa bat oso garrantzitsua egin du jakiteko zein den gizartean erabiltzen den hizkuntza: kalean, dendetan, ospitaletan... Ikerketa Quebec osoan egin bada ere, arreta berezia jarri dute Montrealen. Azterketa honek erakutsi du ama-hizkuntza frantsesa dutenek ez ezik, kanpotarrek ere frantsesetik egiten dutela egoera horietan. Zehatzago esateko, denboraren %75etan frantsesetik hitz egiten dute. Zer esan nahi du horrek? Argi dugu txikitatik frantsesetik dakiten quebecarrek frantsesetik egiten dutela, baina orain badakigu kanpotarrek erabili ere egiten dutela. Beraz, Quebec-eko eguneroko hizkuntzatzat jo behar dugu frantsesa.

Batzuen ustez, horako hori ez da nahikoa. Batzuek diote kanpotarrek frantsesa ikasi eta erabiltzeaz gain, beren seme-alaben ama-hizkuntza ere bihurtu beharko luketela. Eta frantsesaren zalerik erradikalenek nahi dute kanpotarrek bere jaiotza-hizkuntzari muzin egin eta frantsesa bereganatu dezaten etxeko hizkuntza gisa. Hori oso bestelako adierazlea da, asimilazioaren adierazlea hain zuzen. Baina Frantsesaren Kontseilu eta jende gehienaren aburuz, hori ez da Quebec-eko hizkuntz politikaren isla. Quebec-eko Gobernuak ez da horretan saiatzen ari. Bere asmoa ez da, inondik ere, quebecar guztien ama-hizkuntza frantsesa izatea. Gobernuak argi dio norberaren kontua dela eleaniztasunari eutsi eta gogoko hizkuntza nahi duen tokian erabiltzea. Gobernuaren helburua, eta hizkuntza biziberritzeko plangintzen helburua, berriz, frantsesa gizarteko esparru guztietan normaltasun osoz erabiltzea da.



Jean-Claude Corbeil, Quebeceko Gobernuaren Hizkuntza Politikarako ministroa

“Ezinbestekoa da antzeko egoeretan gaudenon elkarlana”

Eusko Jaurlaritzak eta Quebeceko Gobernuak sinatu berri duten hitzarmenak atek zabaldu dizkio elkarlanari. Nik neuk esango nuke lehenago iritsi behar zuela, Kataluniarekin 1982. urtetik ari baikara elkarlanean. Hitzarmena sei esparrutan banatu dugu: toponimia; enpresetako lan-hizkuntzaren normalizazioa; hizkuntz plangintza; terminologia; erabilera berezietako hizkuntz prestakuntza eta etorkinen hizkuntz prestakuntza; eta, azkenez, gure hizkuntzen erabilera teknologia berrien arloan. Hitzarmena 2000. urtean hasiko da gauzatzen. Batetik, Quebeceko eta Euskal Herriko hainbat adituk toponimiari buruzko mintegi batean esku hartuko dute. Bestetik, bateko zein besteko adituek enpresetako esperientziak trukatu dizkiote elkarri. Nire ustez, azken gai hori biziki interesgarria izan daiteke euskaldunentzat, guk urte askotako eskarmentua baitugu. Baina, horretaz gain, hitzarmenak berez du garrantzia antzeko

egoeran dauden bi herriren artekoa delako. Egia bada ere gure egoera soziolinguistikoak arras desberdinak direla, herri bietako egoera ekonomiko onek ahalbideratzen dute hitzarmena.

Ildo beretik, azpimarratu nahi dut lan-munduak datozen urteetan izango duen garrantzia Quebeceko frantsesa, katalanera edo euskara bezalako hizkuntzentzat. Esparru horretan beste batzuetan baino polikiago gabilta Quebecen. Enpresa pribatuetan, oro har, frantsesaren erabilera nahiko handia da (%70 inguru). Enpresa inportante askotan, ordea, frantsesak hainbat oztupo ditu ingeles tekniko gehiago erabiltzen delako edo jabeak kanpotarrak direlako. Beraz, gure hizkuntz politikak arazo horri aurre egin behar dio zehatz-mehatz. Baina hori ez da bakarrik quebecetarron arazoa. Ingelesak lan munduan duen nagusitasuna hizkuntza guztientzat eta, batez ere, hizkuntza gutxitu guztientzat bihurtu da arazo. Beraz, ezinbestekoa da antzeko egoeretan gaudenon elkarlaguntza eta elkarlana.

Lluís Jou,

Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikarako zuzendaria

“Denborak erakutsi du Katalanaren Legeari buruzko eztabaidak interesatuak zirela”

Katalanaren egoera, lur-eremua zein, desberdina bezain konplexua da. Esate baterako, Alacanten edo Ekialdeko Pirinioetako departamentuan erabileraren atzerakada oso kontuan hartzekoa da. Katalunian, berriz, izugarri egin dugu aurrera azken urteotan. Gaur egun, biztanleen %75 baino gehiago gauza da katalanez berba egiteko eta %95 ulertzeko. Bestalde, badirudi 2010. urtean %100 inguru izango dela gai mintzatzeko. Erabilerari dagokionez, oso hedatuta dago Kataluniako administrazio orokorrean eta toki administrazioetan, hezkuntza sisteman eta hedabide instituzionaletan. Gabezien artean, besteak beste, justizia esparrua, lan-munduko alderdi ugari edo zinea aipatu beharra daukagu.

Nabarmendu behar katalanaren biziberritzean legeak izandako garrantzia. 1998ko urtarri-leko Legea, Generalitateak 1983-1997 bitartean administrazio publikoan, hezkuntza sisteman eta hedabide instituzionalen arloan eginiko lana indartzera dator, eta erregelamendupean zeuden hainbat alderdi arautzera. Azpimarratzekoa da arautu egiten dituela katalanaren erabilera bultzatzeko neurriak komunikabide pribatuetan, kultura-industrietan eta lan esparruan. Zuzenbidean ere (notariotza, erregistro zibilak...) sakontzen du eta, orokorrean, hizkuntz propioaren eta ofizialtasun bikoitzaren kontzeptuak argitzen ditu.

Dagoeneko nabariak dira Legeak katalanari ekarri dizkion onurak. Adibide bat jartzearren, Legea indarrean jarri zen lehen hila-betik ikusi da katalanezko egunkarien igoera (%10 1996an, %21 1999an) edo irratik pribatuek katalanari eskainitako denborarena; katalanaren erabilpena sustatzeko itunak sinatu dira enpresa askorekin (Telefonica, Banco de Santander, Seat, Corte Inglés...), eta abar. Bestalde, gogoratu behar da Legeak zer eztabaidatu franko ekarri zuela, bereziki irratik eta zine kuotei dagokionez. Eztabaida horiek kutsu ideologiko eta kontzeptuala zeukaten batez ere, eta ez ekonomikoa. Gainera, denborak aurrera egin ahala ikusi dugu eztabaida interesatuak zirela.

Amaitzeko, esan nahi dut izugarriko mirespena diodala euskararen normalizazio prozesuari. Hain zuzen ere, helduen irakaskuntzan eta euskara galtuta zegoen lurraldearen berreskurapenean nago interesatuta. Ausartuko nintzateke esatera bigarren hau inon ez bezalako esperientzia dela.



**Durk Gorter,
Frisieraren Akademiako kidea**

“Frisiera hizkuntza ofiziala bada ere, Estatuak ez du behar den moduan bultzatzen”

Frisiak 620.000 bizilagun inguru ditu. Ikerketa soziolinguistikoen arabera, biztanleen %74 gai da frasieraz berba egiteko, %94 ulertzeko, %65 irakurtzeko eta %17 idazteko. Gutxi gorabehera %50ek erabiltzen dute normalean frisia etxean. Erabilera handiagoa da, batetik, herri txikietan hirietan baino; eta, bestetik, familia-giroan edo enpresa txikietan hedabide, administrazio publiko, justizia eta hezkuntza sistemetan baino. Egunkarrietan frisia %3ra baino ez da iristen egunero; herri-irratian 50 bat ordu emititzen du frasieraz astero; eta telebistan, 1994tik, ordubeteko programa bat dago egunero.



Gaur egun frisia Herbehereetako hizkuntza ofiziala da. Izendapen horrek, dena den, ez du estatuaren benetako inplikazio eta bultzada ekarri. Hori, begi bistakoa da, esaterako, hezkuntza sisteman, bertan frasierak toki apala baitu oraindik. 1997-1998 ikasturtean Hezkuntza Saila saiatu da beste ikuspuntu bat ematen eta hezkuntza hirueleduna bultzatzeko proiektu bat sortu du. Lehen mailatik seigarrenera, ikasleek erdia frasieraz ikasten dute eta beste erdia nederlanderaz. Zazpi eta zortzigarren mailan, berriz, banaketa hau da: %40 frasieraz, %40 nederlanderaz eta %20 ingelesez. Oraingoan, halere, zazpi ikastetxek baino ez dute parte hartzen.

Baina estatuaren babesa gurako genukeena ez bada ere, hizkuntzarekiko duen jarrera ez da arbuigarria. Ez da ahaztu behar Herbehereak izan zirela Europako Hizkuntza Gutxituen Karta sinatu zuten lehenetariko estatua (1992an). Eurokarta sinatzeak eragin sinboliko positiboa dakar, gure estatuak bere burua behartzen duelako frisia begiratzera. Gainera, kasu horretan, indarrean zegoen politikak nazioarteko berrespena jaso zuen.

**Colin H. Williams,
Cardiff-eko Unibertsitateko irakaslea**

“Gure erronka nagusia jendea zirikatzea da galesa erabil dezan”

Galesek ia hiru milioi biztanle ditu. Horietatik %18,7k dio gai dela galeseraz mintzatzeko. Kopuruak gora egiten du ume eta gazteen artean: 1981-1991 bitartean aldaketarik nabarmenak 3-15 urte bitarteko multzoan gertatu dira. Gainera, joera horrek jarraipena izango du datozen hamarkadetan. Izan ere, badirudi hizkuntz normalizazioa gehiago datorrela eskolaren bidez familiaren bidez baino.

1988-1998 bitartean, galeseran berebiziko eragina izan duten hiru lege argitaratu dira: Hezkuntza Legea (1988), Galeseraren Legea (1993) eta Galesko Gobernuaren Legea (1998). Jakina da legea funtsezkoa dela hizkuntz eskubideak bermatzeko ez ezik, eskubide horiek garatzen laguntzeko ere. Galesen, norberaren eskubideak eta kolektiboak sarri ez dira betetzen

konpromiso faltagatik. Hala ere, ukazina da lege hauek galeserari ematen dioten babesa. Galeseraren Legeak Galesko Hizkuntza Kontseilua sortzea ekarri zuen. Kontseiluak aholkuak ematen dizkio bai Gobernuari, bai administrazioari, bai erakunde pribatu askori.

Galesko Hizkuntza Kontseiluak oinarrizko lau helburu proposatzen dizkio bere buruari: lehenik eta behin, galeseradunen kopurua gehitzea, hori dela-eta Gobernuak egundoko garrantzia ematen dio gazteek hizkuntza ezagutzeari eta erabilera sustatzeari; bigarren, hizkuntzaren erabilera gizartean zabaltzea, batez ere galeseradunekiko harremanak dituzten talde eta erakundeetan; hirugarren, hizkuntza-ohiturak poliki aldatzea eta jendea bultzatzea egungo egoerak eskaintzen dituen aukerak profitatzera; azkenik, galesera indartzea herri-hizkuntza bihurtze aldera, hots, hiztun-komunitatei erraztasunak, aukerak eta baliabideak ematea galesera eguneroko hizkuntza bihurtu dadin herrietan.

Amaitzeko, nabaria da azken urteotan Galeseraren Legeak hezkuntza sisteman edo administrazio publikoan izan duen eragina. Baita, hein txikiago batean, aisialdian eta hedabideetan ere. Nik honako mezu hau zabaldu nahiko nuke: oraindik orain ekin diogu ezinbesteko urratsak emateari Gales gizarte elebidun bihurtzeko eta Legearen babesa ez da nahikoa. Gure erronka nagusia jendea zirikatzea da galesa erabil dezan, eta gure hizkuntza gizarte arlo guztietara zabal dadin. Egon badago halako tentsio bat goitik-beherako planteamenduaren eta behetik-gorako presioaren artean. Eta hori ez dago sistema sinple baten bidez bideratzerik. Horixe dugu Galesko egia biribila, hala nola Euskal Herrikoa edo Kataluniakoa. Ez genuke tentsio estrukturaleri zein sozio-politikoei aurre egiteko beldurrik izan beharko.



Data eta orduak idazteko komeriak

Aspaldian eman genuen aldizkarian datak eta orduak idazteko hainbat gomendio. Geroztik, ordea, Euskaltzaindiak zenbait arau atera ditu auzi horren gainean, eta aldizkariaren ale hartako gomendio batzuk aldatu beharrean gaudenez, hona berriz gaia, oraingoan, arau berrietara egokituta.

[Oharra: *izarrak zerbait ez dela gomendatzen adierazten du].

NOLA DEMONTRE IDATZI BEHAR DUGU DATA?


• Punturik jarri behar al dugu urteak idaztean?

Urte bat idaztean, ez punturik jarri milakoen eta ehunekoen artean: *1.999 oker; 1999 ondo

• Eta nola jokatu 'garren' adierazi nahi dugunean?

– Zenbakiak xifra bidez ematean, puntuarekin: 1999.eko, 1995.eko (gogoratu: deklinatzean -eko jarri behar duzu beti, -garreneko baitago azpian).

– Zenbakiak letraz ematean, letraz: seigarren, zortzigarren...



Kontuz! Ez nahastu xifrak eta letrak:
*1999garren, *sei.ean

• Nola idatzi behar dira hilabeteak eta egunak?

Hilabeteen eta egunen izenak beti letra xehez: *uztaila, urria, osteguna, igandea...* Hilabeteen bukaerako -A artikulua da, beraz, argi ibili deklinatzean, A hori gabe egin beharko baituzu: *urtarrilean, otsaileko eta ez* *urtarrilan, *otsailan...

• Nola gomendatzen da gutunetako data idaztea?

Gutunetan data idaztean, Euskaltzaindiak ez du bide hau gomendatzen: *Galdakao, 1999ko azaroak 17. Horren orde, honako hauek erabili: *Galdakao, 1999ko azaroaren 17a; Galdakaon, 1999ko azaroaren 17an*. Eta gogoratu, eguna artikulua beti : *17a* edo *17an*. Kontuz zenbaki batzuk deklinatzerakoan: *11n* eta *31n*, esaterako.

• Ezin daiteke irailak 7 egitura inoiz erabili?

Bai, erabil daiteke, baina bakar-bakarrik beste zerbaiten aposizioan badoa, eta inolako kasu-markarik hartu gabe beti:

*Bertso-afaria urtarrilak 12an egingo dugu.

Bertso-afaria asteazkenean, urtarrilak 12, egingo dugu.


ETA NOLA ARRAIO IDATZI ORDUAK?

• Ordu bata ala ordubata?

Bereizita, beti; hots, honela bai: *ordu bata, ordu biak...* eta honela ez: *ordubata, *ordubiak

• -Retan, noiz?

Lau eta *hiru* hitzekin bakarrik: *hirurak/hiruretan... laurak/lauretan...* Gainerakoekin ez (sei, zazpi, zortzi...): *seiak, seieta; zazpiak, zazpietan; zortziak, zortzietan...* eta ez: *seiRetan, *seiRetan, *zazpiRak, *zazpiRetan, *zortziRak, *zortziRetan...



• Eta erdiak ala t'erdiak?

Idaztean, 'eta erdiak' erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak. Erabilera enfatikoetan bakarrik erabili 't'erdi' aldaera: *agur t'erdi*, esaterako.

• Gutxi ala gutxiago?

Biak onartzen ditu Euskaltzaindiak, nahiz eta 'gutxi' forma hedatuena dela azaldu: *Bostak hamar gutxi, Bostak hamar gutxiago...* Deklinatzean, mugagabeen jarri: *Bostak hamar gutxitan, bostak hamar gutxiagotan...*

• Nola deklinatu behar dira orduak eta minutuak?

Orduak: Pluralean, 'ordu bata' denean izan ezik, horretan singularra erabili behar baitugu:

Ordu batean, ordu batetik, ordu batera
Ordu bietan, hiruretatik, seieta

Ordua zenbaki bidez adierazten dugunean berdin jokatu:

01:00ean, 01:00etik, 01:00era

02:00etan, 03:00etatik, 06:00etara

Minutuak: Singularrean beti, bai letraz,

bai zenbaki bidez idaztean, eta behar

denean, loturazko bokala sartuta:

ordu bata eta hamaikan:


01:11n (hamaikan)

ordu biak eta hamazazpian:

02:17an (hamazazpian)

seiak eta hogeitabostean:

06:25ean (bostean)




• Berdin jokatu behar al dugu laurdenekin eta erdiekin?

Laurdenekin bi erabilera onartzen ditu Euskaltzaindiak: *Ordu bi eta laurdenak* eta *ordu biak eta laurden*. Hala ere, adi!

NON familiako kasuekin (NONDIK, NORA, NORAINO...), ordua letraz idaztean, plurala erabiliko dugu: *Ordu bata eta laurdenetan, ordu bi eta erdie-tan*. Bestalde, ordua zenbaki bidez ematen dugunean, singularrean jarriko ditugu bi kasu

horiek: *01:15ean, 02:30ean, 06:45ean...* Kontraesana dirudien arren, ez da horrela gertatzen. Zenbaki horien azpian egitura hauek ditugu: *ordu bata eta hamabostean, ordu biak eta hogeita hamarrean, seiak eta berrogeita bostean...*



Aitor Gorostiza
HAEEko teknikaria

Beranduegi

Beranduegi zen egoera aldatzeko. Bere pazientzia infinitoa agortu ondoren, eta bere malgutasun modelikoa hautsi zenean, bi aukera besterik ez zitzaizkion geratu: ihes egitea, alde egitea atmosfera pozoitu horretatik, edo bere baitan izkututzea, inguruarekin harremanak moztea, barne-espinal amaitezinean eroriz, erabat erotu arte, barruan gordezten zuen munstroak irentsita.

Nazka-nazka eginda zegoen, bere bizitzaren urterik emankorrenak alperrik galdutako irudipenaz. Printze Handiarentzat buru-belarri lan egin ondoren, argi-ordurik distiratsuenak eta bizitza pertsonala guztiz sakrifikatu... Bat-batean gizaki heldua zen, baina hutsik zegoela ohartu zen etsi-etsian.

Desilusioak jota, zulo beltza besterik ez zuen nahi betirako gordetzeko. Ez zeukan harreman zuzenik Jauregiko Printzearekin, eta tartean zeuzkan jauntxo trakets eta alper horiek berataz aprobetxatu eta pikutara bidaltzen zuten behin eta berriro, jaingo faltsuek ematen zieten ahalmenaz baliaturik. Iniziatibak atzera bota, urtetako proiektuak suntsitu, ideiak lapurtu... horixe zen azken urteotako laburpen tristea. Baina hemendik aurrera agindutakoa besterik ez zuen beteko. Beste irtenbiderik ez zegoen. Bere sormena eta ahalegin guztiak Jauregitik kanpo garatuko zituen.

Eta aro berri honetako lehen agindua artxibategitik dokumentu zahar batzuk ekartzea zen. Nagusi zital eta alperrak argi adierazi zion: berak eta ez beste inork artxibategiko zaindariari txosten horiek eskatu behar zizkiola. Egia esan, eta hainbeste urte Jauregian lan egin ondoren, ez zuen artxibategia eza gutzen. Ez zen inoiz ere jaitsi sotoko azken solairuraino, eskailerak estutu eta okertzen ziren punturaino. Zenbait pisu atzean utzi ondoren, eraikin azpiko azken mailaraino iritsi zen. Argitasuna urria zen, eta garbiketa-taldeak horraino sartzen ez zirela argi zegoen. Usaia berezia zen, eta hautsa, paper horizontuak eta bere aurrean korrika eta saltoka desagertzen ziren intsektu ilunak non-nahi zeuden. Korridore luzea ageri zen bere aurrean, eta artxibategiaren bila hasi zen.

Beti pentsatu nahi izan zuen egunen batean EGIA agerian geratuko zela, maiuskulaz, pairatutako injustizia gordinak lau haizetara zabalduz; baina urteak itxaropen antzu horretan igaro ondoren, lan eta lan, eta azkeneko zartada jaso ondoren batez ere, zilbor-estea ebaki behar zuela erabaki zuen. Inork ere ez zizkion eskerrak emango sekula, inork ere ez zuen bere erabateko ardura kontutan edukiko inoiz ere ez. Gogogabetuta, bakar-bakarrik zegoen Inperioko administrazioan.

Pauso dexente eman zituen aurrerantz, ate itxiak topatuz bi aldeetan, eta korridorearen bukaeran, argia are exkaxagoa zen lekuan, eskubitarako bihurgunea topatu zuen. 180 gradutako buelta ematen ari zela iruditu zitzaion, eta hasierako korridorearekiko paraleloa zen beste batera sartu zen. Eskuineko parteko ateen beste korridorera eman behar zuten ziurrenik, baina itxita zeuden guztiak. Honek zentzu handirik ez zuen, baina berehala korridorea ezkerretara okertu zen, eta hasierako norabidean ari zela otu zitzaion. Gainera, korridore luze hauek ez ziren erabat zuzenak, eta era horretan eraikinaren erdikaldera hurbiltzen ari zela susmatu zuen. Zazpigarren buelta eman ondoren, korridorea bitan banatu zen, eta kriterio jakinik gabe

bat aukeratu zuen. Antigoaleko Zazpi Arte Liberalak bururatu zitzaizkion orduan: Gramatika, Dialektika, Erretorika, Musika, Aritmetika, Geometria eta Astronomia. Halako laberintoaren arkitektoak ikasketa horietan oinarritu zirela imajinatu zuen, korridoreak diseinatzeke garaian.

Gaztetako ilusioa garrastu eta gero, dezepzioa bere buruaz jabetu ondoren, izaera ere aldatu zitzaion, erabat ozipindu arte. Malkorik ere ez zitzaion geratzen. Azkeneko gertaera, garrantzirik gabekoa egia esan, labankada bezala sartu zitzaion, instant batean hondo-hondoraino, barrunbeak zarrastatuz. Baina gertaera honen aurretik jasandako guztia kontutan hartu behar zen, noski. Berriro ere, baina oraingoan hamaikagarren aldiz, bera ahaztuta geratu zen, zokoratuta, mesprezatuta. Eta orduantxe konturatzen zen, gezurra bazirudien ere.

Zazpi zirkuitutako egiturak hasieran sotoaren kanpokaldea zeharkatzen zuen, antza, baina gero barrurantz zihoan, artxibategira iritsi arte ziurrenik. Aurrera jo zuen. Bai, aspertuta zegoen, ezin zuen gehiago tiratu. Nekatuta zuen gogoia, zahartuta arima, minduta bihotza. Bide berriak urratu ondoren, beti Printzearen onerako, nekatu gabe, eskuizkribuak idatziz, kodi-zeak sortuz, hizkuntza eta alfabeto diferenteak erabiliz... eta ezertarako ere ez.

Burua pil-pilean, bihurgune ilunek zentrutik urrutiratzen zutela susmatuz, atzera jo behar izan zuen gora zihoazen eskailekarak topatu ondoren. Ez ziren hasierakoak, baina artxibategia behean zegoenez, ez zituen igo. Korridorea bitan banatzen zen tokira bueltatu eta bigarren aukera hartu zuen. Laister hau ere adarkatu zen, behin, birritan, eta gora eramaten zuten eskailekarak behin eta berriro topatu eta gero, eta atzera eta aurrera zenbait aldiz egin ondoren, erabat galduta zebilela konturatu orduko, larritu zen. Usaia geroz eta desatseginagoa zen.

Baina orduan argia itzaltzen hasi zen, eta ikaratuta, korrika abiatu zen irteeraren bila. Tamalez une horretan ez zituen eskailerak aurkitu. Eta izua bere gogoaz jabetu zenean, eta bihurgune zikinetan estropozu egin eta erori eta altxatzen zen bitartean, odoletan jadanik, hotzikarak sentitu zituen, bihotzaren taupada erotuen artean.

Eta azkenean helmugara iritsi zen. Espiral itogarriaren erdian, usteldutako putzu ilun baten gainean ezarrita, zikin eta izerditan, artxibategiaren zaindaria aurkitu zuen, bizkarra ematen ziolarik. Animalia kirats jasanezinean, aire hezea aurpegian itsatsita eta goragalea agoantatuz, argibideren bat lortu nahiean hurbildu zitzaion, zalantzarik bildurgarriena garunaren puntu urrun batean jaio eta hazten zen bitartean, arrazoiaren estalkia gaudituz arte; baina zaindaria burua jiratu zuenean, pizti begirada berari zuzenduta eta mutur beltzetik lerdea zeriola, beranduegi zela konturatu zen. Ez zuen ihes egiteko aukerarik izan. Bere ametsgaiztorik sakonenetan ere ezin izan bait zuen sekula imajinatu dedaloaren erdian topatuko zuen zezen-buruko gizaseme basatiak egundoko orroa egin, atzaparez heldu, lurrera bota eta errukirik gabe eta artean bizirik bere bihotza irentsiko zuenik.

Gorka Burguete
Idazlea

Artikulu-agirien edizio arazoak

Katalogo, liburu, artikulu eta gisako agiriak idatzi eta itzultzerakoan etengabe ari gara zalantzatan edizio arazo formalekin: letra moldeak, bibliografia aipamenak, komatxo arteko hitzak, parentesiak, marratxoak... Ikus ditzagun irizpide batzuk.

LETRA MOLDEAK

Letra beltzak

Letra beltza nabarmengarri bisuala da batez ere, eta oro har lehendabiziko begiratuan atentzioa testuaren zati garrantzizko batzuetara ekartzeko (izenburuak, atalburuak, datak, orduak, epeak, prozedurak...) erabiliko dugu. Ez du balio, beraz, hitzak asmo eta adierazi berezi batez markatzeko.

• Letra etzan edo italikoa

Letra italiko edo etzanak, berriz, lau zereginetarako balio du oro har:

- liburu, eskultura, margo, film, argazki eta abarren izenburuak adierazteko;
- beste hizkuntzetako hitzak markatzeko (*performance*, *collage*, *world music*);
- hitz baten adiera berezitua markatzeko (*egia* edo *ni*-a filosofian);
- hitz arrunt bat nabarmendu edo azpimarratzeko, hitz arrunta izanik idazle edo egileak nolabait asmo eta esanahi nabarmenagoaz jantzi nahi duenean.

Azken erabilera horri buruz, egile idatzietan (hau da, administrazio prozedura estetik at diren idatzietan) maiz gertatzen da hitzak asmo edo intentzio jakin batez nabarmendu nahi izatea. Hona zer dioen *Euskaldunon Egunkaria*-k letra italikoaren balioaz:

“Italikoak, hitz arrunten kasuan, halako enfasia ematen dio hitzari, batzuetan umorezkoa, besteetan zalantzakoa, benetakotasuna kolokan jarriko balu bezala. Esan liteke italikoak, zenbaitetan, hitza ideologizatu egiten duela”.

Bereziki komeni da letra italikoak ez erabiltzea hitzez hitzeko aipamenak egiteko; horiek komatxo artean egingo ditugu.

• Letra molde berezien idazkera

Zer gertatzen da letra italikoz idatzi behar dugun hitzak deklinabide atzizkia badarama? Halakoetan, *Euskaldunon Egunkaria*-ren irizpidea erabiliko dugu:

- Euskal hitzetan, deklinatu egiten da italikozko hitza osorik, deklinabide atzizkia barne, marratorik gabe noski; adibidez: *Porruak* erretzen ditu.
- Hitz arrotzetan, ordea, marratxoa idatziko dugu hitzaren eta deklinabide atzizkiaren artean, eta atzizkia biribilez; adibidez: Aurtengo *cash-flow*-a oso txarra izan da lberdrolarentzat. Hala ere, hitz arrotza a-z amaitzen denean, pluralezko eretan hitza osorik italikoz idatzi behar da; adibidez: Nikaraguako *contrek* Estatu Babesa zuten.
- Italikoz doazen izen bereziak deklinatzeko, marratxoa jarri eta deklinabidea biribilez; adibidez: Ternuatik etxerako bidea hartu du *Goizeko Izarra*-k.

KOMATXOAK

Erne ibili behar dugu komatxoekin. Idazle askok ez bide dakite zertarako erabili behar diren, eta beraz gehiegitan (eta gaizki) aurkitu ohi ditugu komatxo arteko hitzak gure itzulgaian. Bi zeregin nagusitarako balio dute komatxoak:

- inoren hitzak diren bezalaxe (hitzez hitzeko aipamena) gure testu barruan jasotzeko;
- hitz batek duen esanahiaren guztiz alderantzizkoa esateko; adibidez, Oso pertsona “kultoa” da idazten duenak esan nahi du pertsona hori ez dela batere kultoa, ezjakin hutsa baizik.

Biziki komeni da, beraz, komatxoak ez erabiltzea hitzak nabarmendu, berezi edo azpimarratzeko, nahiz hitz horiek adiera markatua izan edo beste hizkuntza batzuetatik hartuak izan (halako hitzak letra italikoz idatziko ditugu).

Hala ere, komatxo artean idatziko ditugu aldizkari baten barruan den artikulu baten izenburua.

Komatxoak esaten dugunean “komatxoak” esan nahi dugu, ez «guillemet français» edo ‘komatxo bakarrak’. Komatxo artean dagoen esaldi baten barruan beste komatxoak idatzi behar baldin badira, ‘komatxo bakarrak’ (apostrofearen tekla) erabiliko ditugu.

Komatxoekin batera puntuazio ikurren bat badago, beti ondoren jarriko dugu; adibidez: “Oso erakusketa bitxia da”, esan zuen zuzendariak.

PARENTESIAK, AKOTAZIO MARRAK, APOSIZIOZKO KOMAK

Zalantzatan ibili ohi gara esaldi baten barruko etena nola idatzi behar ote den, egile edo idazle bakoitzak bere ohiturak izaten baititu horretan ere.

Irizpide orokor hau eman genezake:

- Parentesia informazio edo azalpen osagarri eta gehiengotan laburra emateko erabiliko dugu, inguruko diskurtsoarekin ez dadin nahas; adibidez, parentesi artean emango ditugu probintzia edo toki baten kokapena, lege edo arau baten argitalpena, aipamen baten bibliografia oharra, eta abar.
- Akotazio marra (–) erabiliko dugu eten luzeagoa egiteko, inguruko sintaxiari lotuagoa dagoena askotan, diskurtsoaren alboz albo egindako saihaspen edo kontara gisa.

Kasu bakoitzean ikustekoa da, gainera, etenaldi horiek ez ote diren egokiago joango koma soilen artean. Izan ere, euskaraz badago aposiziozko perpausak koma artean idatzeko joera garbia: Teknika horiek, horrenbeste urtetan euskal probintzia guztietan hedatu eta orokortu izan zirenak, galduak dira gaur egun.

GFAko Itzultzaile Lantaldea

IZENZALEKERIA

Gaztelaniaz halako hizkera “jasoan” hitz egin edo idatzi nahi izanez gero, gauza agerikoa da estilo nominalerako joera. Badirudi aditzak zokoratu eta beren orde zizenak jarrita, hizkera arruntetik ihes egiten dela nonbait. Euskaraz ere horrelako zerbait gertatzen ari zaigu, eta batez ere, administrazioan. Ekintzak adierazteko gure hizkuntzaren tipologiak berez aditzetara jotzen badu ere, horra non jarraitzen dugun jo eta ke gaztelaniaren estilo sasi-jaso hori geureganatzen.

Betikoa: mandoa saldu eta astoa erosi. Horren ondorioz, gaurko administrazioko hizkeran *trenak ez dira irteten*, bai ordea, *irteerari ekiten*; *langileak ez dira prestatzen*, nahiago dugu *langilegoaren prestakuntza gauzatu* edo *burutu* edo...

Ikus dezagun zenbaiterainokoa den arazoa eta nola konpon daitekeen.

NOMINALIZAZIOAK

Aditzak erabili beharrean, izenak hautatzen ditugu neurririk gabe, eta gehienetan, izen abstraktuak (-keta, -kuntza, -pena...). Izen horien atzean ezkututzen diren aditzak bizi-bizirik daude; erraza da, beraz, ordezkatea, esaldiak indarra har dezan.

Langileen hautaketarako irizpide subjektiboan erabilpenaren salaketa egin dute sindikatuak [bost izen eta aditz bat]

Langileak hautatzeko irizpide subjektiboak erabili direla salatu dute sindikatuak [hiru izen eta hiru aditz]

IZENAK, JARRAIAN

Zehaztasunaren izenean egiten dugu, bai; baina izen horiek hiru baino gehiago badira, eta gainera, luzeak, erritmoa dugu galtzaile.

Los titulares de los órganos administrativos podrán ser suplidos temporalmente en los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad por... [jatorrizko testua]

Hutsune, kanpoaldi edo gaixotasunaren kasuan, administrazioko organoetako titularrak... [lehen itzulpena: izenak, beren horretan]

Administrazioko organoren batean titularrik ez bada edota kanpoan edo gaixorik badago... [bigarren itzulpena: aditzak, nagusi. Administrazioa eta Prozedura Legea (30/92), IZOk itzulitakoa]

En los casos en que proceda la comparecencia, la correspondiente citación hará constar expresamente el lugar, fecha, hora y objeto de la convocatoria...

Agerraldia beharrezkoa den kasuetan, espresuki adieraziko da deian tokia, eguna, ordua eta zertarakoa...

Herritarrek agertu behar dutenetan espresuki adieraziko zaie deian nora, zein egunetan, zein ordutan eta zertarako agertu behar duten... [Administrazioa eta Prozedura Legea (30/92), IZOk itzulitakoa]

IZEN-BIKOTEAK

Maiz aurkituko ditugu administrazioko testuetan eta itzulpenetan (adib.: *realización y mantenimiento de obras y trabajos*). Ez ahaztu hortxe dagoela aditza kasu askotan.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento...

Hitzarmen horiek interpretatu eta betetzerakoan gerta daitezkeen auziak...

PERIFRASIAK

Benetako aditzaren orde, honako hau erabiltzen da: izen abstraktua + esanahi gabeko aditza (adib.: *erabili/erabilpena eman*; *koordinatu/koordinaketa gauzatu*).

- Alemaniako hiritartasunaren jabe da
Alemaniako herritarra da/Alemana da

- Ikastaroak hamar orduko iraupena du
Ikastaroak hamar ordu irauten du

- Bisitariak atzetik egin behar dute sarrera
Bisitariak atzetik sartu behar dute

- Loteriaren salmenta kalez kale burutzen da
Loteria kalez kale saltzen da

- Udalak fitxatzeko erlojuen aldaketari ekin dio
Udalak fitxatzeko erlojuak aldatu ditu

Esaldi pasiboak, inpertsonalak eta gerundio trakets batzuk ere perifrasi-mota bat dira: egilea gorde egiten dute, esaldia luzatuz eta erritmoa motelduz.

- Zinegotzi guztien botoekin onartuak izan dira aurrekontuak
- Zinegotziek aho batez onartu dituzte aurrekontuak

HITZ ABSTRAKTUAK

Gaztelaniaz euskaraz baino joera handiagoa dago izen abstraktuetarako; eta horrek badu islarik, zalantzarik gabe, gure testuetan. Hori horrela izanik, administrazioan gertatzen diren gauzak *administrazioaren munduan* gertatzen dira; behin-behinekoak badira, *behin-behineko izaera* izaten dute; ez dute helbururik *izpiritua* baizik; eta gainera, *koordinada batzuetan kokatzen dira*.

FORMULAK ETA LOKUZIOAK

Administrazioko hizkerak hain maite dituen formula horietako batzuk aditzaren laguntzaz eman daitezke.

- ... *con arreglo a lo dispuesto en el artículo 8* [aditzik ez]
- ... *hala ezartzen baita 8. artikuluan* [aditzarekin]
- ... *sin perjuicio de la posibilidad de ulterior presentación de recurso* [aditzik ez]
- ... *hala ere, errekurtsua aurkez daiteke gero* [aditzarekin]
- ... *excepto en el supuesto de presentación incompleta de datos* [aditzik ez]
- ... *non eta ez den gertatzen datu batzuk falta direla* [bi aditzekin]

Honaino azalpenak. Inork ez dezala pentsa izenaren aurkako gurutzada egiten ari garenik. Perifrasiak, nominalizazioak, hitz abstraktuak... hor daude eta zilegi dira; baina adi esaerari: izena handi, izana txiki.

Joseba Lozano

HAEko administrazioko hizkeraren arduraduna

Zer ekarriko digu XXI. mendeak?



Jose Antonio Artamendi Mugerza Deustuko Unibertsitateko Filosofia katedraduna

Mende berriak gizartean sortuko dituen bi arazo nagusietako bat berdintasuna eta ezberdintasuna biak batera sortzea izango da. Berdintasuna Frantziako Iraultzarekin lortu zen, XIX. mendean hasieran. Gaur egun ikusten dugu berdina izateko ezberdina izan behar dela: A eta B berdina dira A eta B ezberdinak direlako. Berdintasunak ezberdintasuna behar du, biak lortu behar dira batera. Ez dago berdintasunik ezberdintasunik ez badago. Nola lortu hori?

Logika klasikoan kontraesaneak ziren, baina ez da hala, bata bestea ekartzen du. Batzuk nekatzen dira berdintasuna azpimarratzen; besteak, berriz, ezberdintasuna azpimarratzen. Baina biak batera sortu behar dira.

Horrekin lotuta, mundua merkatu eta herri bakarra bihurtzen ari dela diote; bai, baina herri bakar horretan kaleak eta auzoak izango dira. Globalizazioa fenomeno orokorra da eta ezin da bere kontra joan. Alde guztietan ezberdintasuna azpimarratzen ari gara, baina berdina izanik.

Halaber, XIX. mendean berdintasuna identitate bihurtu zen eta horretarako sortu zen estatua. Estatuak aldaketa legalak eta administratiboak ekarri zituen eta gizona eta emakumea ukatu eta hiritar bihurtu zituen. Herriak ukatu eta departamentuak sortu zituen.

XXI. mendeak ekarriko duen bigarren arazo nagusia da gizon-emakumeok ezingo dugula izan besteak gabe, besteekin gara. Geure nortasuna besteekin lortzen dugu, gure nortasuna besteen izaeraz beteta dugu, baina ez gara besteak. Nola lotu besteekin izatea besteak izan gabe? Arazo hori oraindik planteatu gabe dago eta planteatu egin beharko da. Besteak gabe ezin gara izan.

Iñaki Irazabalbeitia Zientzi dibulgatzailea

Bai mundu berria! Zin dagizuet ez naizela eztabaidan hasiko. Egia esan, XXI. mendea datorren urtean ala 2001ean hasten denentz ez zait axola; garrantzirik ez dauka, konbentzio hutsa baita azken beltzean.

Atzen ehun urteek zientzia eta teknologiaren iraultza ikusi dute. Inoiz baino azkarrago aldatu da mundua. Gure aitona ehun urte beteko zituzkeen aurten. Mundura etorri zenean, artean, aeroplanoak etozkizuna ziren; hil zenean, ostera, Armstrong jada Ilargira heldua zen. Hurrengo ehun urteetan, zer?

Gure planeta arrisku gorrian dago. Biodibertsitatea kili-kolo, deforestazioa arropaladan, klima-aldaketa jada gure artean, ozono-geruzaren zuloa gero eta handiagoa eta erregai fosilen epemuga hurrago. Emisio poluzitzaileak murriztea izango da etorkizuneko erronka nagusia, horietan baitago aipatutako arazo askoren muina. Desafioa ez da nolanhikoa! Erregai fosilak utzi eta beste energi iturri batzuek mugiaraziko dute gure gizartea. Energia nuklearra, fisiozkoa behinik behin, ez da konponbidea, eta fusiozkoa oraindik desioa da. Energia berriztagarriak dira esperantza; hidrogeno-ekonomia ahaztu barik, jakina.

Injinerutza genetikoak ate asko zabalduko ditu. Klonazioa, elikagai transgenikoak eta gainerakoak eztabaidagai izango ditugu. Auzi honetan zientziak baino haratago etikak izango du zeresan handia. Bestalde, ireki zaizkigun ate horiek nora garamatzaten zehatz-mehatz ez dakigu. Tentuz ibili beharko dugu, geroa oparo dager, dena den. Egunotan *Mars Polar Lander* zundarenak egin badu ere, Marte hizpide izango dugu. Hogeit bat urteren buruan, planeta gorria urratuko dute gizakion botek eta, horrekin batera, terraformazio-ametsak indartuko dira. Eguzki-sistema goitik behera miatuko dugu, unibertsoaz gehiago jakingo dugu eta, apika, beste batzuen berri ere izan genezake.

Mikroelektronikak eragindako iraultzaren lehen urratsetan bizi gara. Zer eman dezakeen somatzen hasi gara: txipak, ordenadore pertsonalak, Internet... Zer emango duen ikustear dago, baina Xerox enpresako Mark Weiser ikerlariak dioena ekarriko dut aztarna moduan: "Epe luzera, ordenadore pertsonala eta lanerako terminalak desagertuko dira. Izan ere, informatikarako sarbidea toki guztietan izango da: paretetan, gure eskumuturretan eta behar ditugunean erabiltzeko hor zehar barreiatuta egongo diren zirriborroetarako ordenadoreetan".



Ludger Mees EHUko Historia irakaslea



Komunismoa eta Sobiet Batasuna bertan behera geratu zirenean liburu garrantzitsu bat kaleratu zen eta liburuaren inguruan filosofia bat ere garatu zen, zera esaten zuena: “Historiaren bukaera da, hemendik aurrera egia bakarra dago, kapitalismoaren egia eta logika, eta ez dago bestelako alternatibarik”.

Hori abiapuntutzat harturik, nire erantzuna ezezkoa da. Izan ere, historia ez da bukatu, fase berri batean sartu da mende berri honetan, eta arazo latz eta kezagarri batzuk aurreikusi daitezke XXI. mendeari begira.

Arazo horietako bat, jakina, hazkuntza demografikoa da, hirugarren mundukoa batez ere. Horrekin bate-ra, baita pobrezia ere. Gaur egun ez dugu demografiaren arazoa zuzenean jasaten, iruditzen zaigu oso urrun dagoela, eta ondo bizitzen jarraitzen dugun bitartean, gainontzekoak hor konpon.

Baina datorren mendean askoz ere gertuago biziko dugu arazo hori, batez ere migrazioarena. Gaur egun noizean behin etorkin batzuk iristen dira gurera, pateretan, polizoi moduan...; baina hemendik aurrera etorkin gehiago etorriko da, beren herrialdeetako bizi baldintzak ezin dituztelako jasan eta gure artean banatzen dugun pastelaren puska baten eske. Ez dira afrikarrak edo asiarrak bakarrik etorriko, baita Europa Ekialdeko jendea ere.

Horrekin lotuta, datorren menderako bigarren arazo latz bat inguramenaren babesia eta sustapena da. Pobrezia konpondu nahi badugu, Hirugarren Munduari lagundu nahi badiogu, zein garapen sistema edo tresna bultzatu behar dugu? Gure kapitalismo industrialak? Zalantza handiak ditut, gure sistemak gure aberastasuna ahalbideratu badu ere, ingurumena suntsitu baitu.

Eta nolakoa izango da XXI. mendeko mundua? Askoz ere txikiagoa, hau da, muga gutxiago izango ditu. Gaur egun oraindik oso normala da leku batean jaio eta bizitza guztia bertan egitea. Hemendik aurrera, ordea, gutxiagotan gertatuko da hala. Bizitzan toki batetik bestera mugituko gara, derrigorrez: ikasteko, lana bilatzeko, lan egiteko... Ondorioz, orain baino harreman gehiago izango ditugu beste pertsona batzuekin.

Hori horrela, –Euskal Herrian bizi garenontzako garrantzitsua–, identitateen bilakaera gertatuko da etorkizunean. Ez bagara leku bakar batean bizi, jende askorekin harremana badugu eta hainbat hizkuntza hitz egin behar baditugu, horrek ondorioak izango ditu identitatean. Identitatea anitzagoa izango da aurrerantzean, osagai gehiago izango ditu. Horrek arrisku bat du: badakigu ezin garela bizi identitate jakin bat eduki gabe, geurea sentitzen dugun zerbait, berezko kultura bat gabe azken finean; baina nola babestuko dugu geure identitatea kanpoko eraginei uko egin gabe?

Erronka handia da etorkizunerako. Geurea sentitzen dugun identitatea babestu nahi badugu, ezin diegu atea itxi kanpotik datozen eraginei; alderantziz, kanpotik datozen gauza onak aprobetxatu behar ditugu gure mesederako. Horrek ez du esan nahi geure nortasunari uko egin behar diogunik, baina beti ere atea ireki behar ditugu eta kanpora atera; inolaz ere ez, atea itxi eta geurea bakarrik defendatu.



Nestor Basterretxea Eskultorea

Ez dut zalantza handirik adierazteko datorren mendea oparagoa izango dela berrikuntza teknologikoetan –oso ikusgarriak batzuetan– balore etiko eta ideologikoetan baino. Komunikazio eremuetan dagoeneko bizi dugun iraultzak harridura sortuko digu, lasaitasuna baino gehiago. Uste dut munduan zehar alde batetik bestera bidaiatu ahal izateak, finean, kezka edo larritasun sakona sor diezagukeela.

Kezkatu egiten nau ez jakiteak datorren mendean zein ideiek zuzenduko duten mundua, zeinek izango duten eragin gehien, zein sartuko diren gure gogo edo animorik barne-barnekoenean.

Sormen artistikoa izango da, uste dut, aurreko egoeratik libratuko dena. Izan ere, makinek, kalkuluak berehala egiteko duten ahalmen izugarri eta guzti, ez dute inoiz ordezkatu artistak baten marrazkiaren pultso intimoa, bere zalantza eta kontraesanen erritmoa, edo sormenaren ezusteko xehetasun pertsonala.

Makinek ezin dute sortu beren kabuz Picassoren *Guernica*. Beraz, datorren mendean izango dira itzal argitsu batzuk bertan babestu eta robot dotoreak bihurtzea saihesteko.

Idea politikoei dagokienean, diruaren indarra gero eta indar handiagoz nagusituko da.

Jakes Goikoetxea
Kazetaria

ZENBAT ETA GEHIAGO, HOBEA

Bilboko Udaletxerako sei menpeko hartzeko hautaketa-prozesuan erabilitako proba psikoteknikoak berriro egiteko agindu du, oraintsu, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak.

Hain zuzen ere, epaimahaiaren erabaki bi jo zituen auzitegiak zuzenbidearen aurkakotzat. Alde batetik, aurkeztu zirenen lanbide-curriculum balioztatzerakoan, puntu gehiago eman zitzaizkien deialdiko lanpostuetatik hurbilago zeuden tituluei, hau da, pisu handiagoa zeukaten Lanbide Heziketako edo Eskola Graduak tituluek unibertsitatekoekin baino. Bestetik, epaimahaiaren bigarren erabakia, ariketa psikoteknikoak balio gabetzea ekarri zuena, erdiko puntuazioa lortu zutenei balio handiagoa ematea izan zen, erabilitako proba psikoteknikoetariko batean (arrazoibidearen ariketan), hau da, nahiago zituzten ariketa horretan puntako puntuaziorik lortu ez zutenak. Atal bi horiek, hots, ikasketa-titularen balioespenak eta arrazoitze-ariketak, batera, proba psikoteknikoetan lor zitekeen azken puntuazioaren %20a baino gutxiago ematen zuten. Prozesua amaitutakoan hautaturiko seietatik hiruk unibertsitate-titulua zeukaten.

Tituluak, esperientzia... ez dira berme nahikoa

Azken batean, herri-administrazioetako hautaketa-prozesu eta deialdietan jainkoaren agindu diruditen arauetako bat hautsi zuen, antza, hautaketa-prozesu honetako epaimahaiak: “Zenbat eta gehiago, hobea”. Zenbat eta titulu, esperientzia, antzinatasun, ikastaro... gehiago egiazatu ahal izan, orduan eta aukera gehiago izango dituzu hautaketan garaile izateko; hor konpon hilerriko behargina ala giza baliabideen zuzendaria behar dugun.

Arriskua dago, arrisku bizia, herri-administrazioetako lanpostu-deialdi eta hautaketa-prozesuak hautagaien zerrenda ordenatua emango digun ariketa-multzo hutsa bilakazteko, baina hautaketa egiten den lanpostuaren eginkizunekin, onenera jota, zeharkako zerikusia baino ez daukan ariketa-multzoa, ordea.

Kantitatetan eta kopurutan (epaian cuantificables, medibles) neurria har dakiekeen irizpideak bilatu nahi dituzte etsi-etsian, izangaien hurrenkera hori, esan duguna, lortu ahal izateko. Bai enplegatu publiko berrien hautaketa-prozesuetan bai barruko lehiaketa-deialdietan, antzinatasun hilabeteetara eta ikastaro-orduetara jotzen da hartakoa identifikatzeko irizpide ezin hobekak bailiran. Hargatik uste dugu 100 hilabeteko antzinatasuna daukan funtzionarioa 90 hilabete dituen beste bat baino hobea dela lanpostu jakin baterako, edota 200 ikastaro-ordu hartu dituen 190 ordu dauzkana baino trebeagoa dela, kopuru hutsak ez diren beste alderdi batzuei batera baliorik eman gabe.

Horrela, bada, erreferentzia matematikoa aurkitu dugunez (1 antzinatasun-hilabete = 1 puntu; 10 ikastaro-ordu = 1 puntu), badirudi bila genbiltzan objektibotasuna idoro dugula eta goian aipaturiko agindua bete dugula, “zenbat eta gehiago, hobea”, alegia.

Baina edonor konturatzen da antzinakoena, edo ikasketa-titulu handiagoa daukana, ez dela beti egokia izaten lan-

postu baterako, edo, bestetara esanda, nolako edo halako lanpostuan jarduteko gaitasuna eta enpresan daukagun antzinatasuna edo ikasketa-titulua ez dira izaten erlazio zuzena duten aldagaiak, oso noizbehinka baino. Elementu objektibo eta neurgarriak bilatzen hasita, aurkeztutakoekin garaiera eta pisua har genezake kontuan, eta altuenak eta argalenak jarri puntu-mailaketan lehenengo. Langile berriek lanpostuan izango duten arrakastaren adierazletzat beren pisua eta garaiera hartzea ez da, ez horixe, onena hautatzeko antzinatasuna, titulazioa edo ikastaro-orduak aintzat hartzea baino astakeria handiagoa.


Lanpostu baterako, arlo publikoan nahiz pribatuan, hautagairik trebeena identifikatu eta hartzeko jardunbidea izan daiteke langileen hautaketaren definizioa.

Langilearen kompetentziari begiratu behar zaio

Azken urteotan ikuspegi berri bat zabaldu da giza baliabideen kudeaketa ulertzeko moduan, “kompetentzien arabera kudeatzea” alegia, eta horren isla langileen hautaketaren munduan “kompetentzien arabera hautatzea” da. Hain zuzen ere, langile batek lanean zenbat emango duen iragartzeko ohiko ezagutza-probek ez dutela balio erakutsi dutenez, beste adierazle edo iragarle batzuk bilatzera jo da, azken finean, helburua lortzeko. Aldagai horiek pertsonen trebetasun edo gaitasunak dira, hau da, bakoitza egiteko gai dena eta lanean duen emankor-

tasunaren arrazoi dena. Kompetentzia-kontzeptuaren barruan sartuko lireratek ezagutzak, trebetasun edo dohaiak, jarrerak, ezaugarriak... azken batean, enplegatu eraginkorra erdipurdikoagandik bereizten duen guztia.


Beraz, langileen hautaketako joera berriek hautaketa-prozesu guztien aurretik beste urrats bat eskatzen dute, hain zuzen, lanpostuan arrakastaz jarduteko langilegaiak izan beharko dituen trebetasun edo kompetentziak zehaztea. Ikuspegi honek hautsi egiten du zorioneko “zenbat eta gehiago, hobea” goiburua, behar den trebetasun-maila ez



baita absolutua, erlatiboa baizik, lanpostuaren ezaugarrien arabera.

Erosetxe handietako merkataritza-zuzendariak trebetasun-maila berbera ote dauka bertako ehungintza-sailean arropa-saltzaile bezala? Bankuko administrazio-kontseiluko burua gai da bankuaren sukurtsal bateko leihatilan jendea hartzeko?

Hori ez da kontzeptu berria herri-administrazioen eremuan. Europako Batasuneko funtzio publikoan sartzeko hautaketa-prozesuetan ez dituzte beti hartzen azkenean puntu gehien dauzkatenak, aitzitik, nahi-taez egin beharreko ariketa baztertzailak gainditu ondoren, gainditu dituztenak puntuen hurrenkeran jarri ostean, deialdia egin duen administrazioa bera da bete behar dituen lanpostu konkretuetarako kompetentzia egokienak dauzkatenak hautatzen dituenena. Horrela, gerta daiteke hautaketa-probetan lehenengo geratu den langilegaiak lanposturik ez hartzea, baina, demagun, zortzigarrenak bai. Azken batean, gutxienez eskatu behar zaien kompetentzia-maila ematen duten langilegaien artean, lanpostuan arrakasta izango dutela iragar dezaketen trebetasun bereizgarriak bilatzen ditu administrazioak.



Ohiko hautaketaren aurrean... irudimena!

Gure ikuspegitik ordea, beharrezkoa da planteamendu horiek baztertzea. Funtzio Publikorako sarbidearen gaian indarrean dagoen legeria esparru egokia da enplegatu publikoen hautaketa modu eraginkor eta bermezalean egiteko. Ondorioz, legeria hau betetzeak abiapuntu guztiz beharrezkoa izan behar du hautaketa-prozesuetan.

Hala ere, ezin dugu ahaztu, ia ziurtasun osoz, ikuspuntua aldatzea izan dela giza baliabideen kudeaketan aspaldiko urteotan izan dugun aurrerapauso funtsezkoenatarikoa: lehen lanpostuari aitortzen bazitzaion garrantzia, eta balioa batez ere espezializazioari ematen, orain pertsonari aitortzen zaio, eta trebetasuna estimatzen. Gauza izan behar dugu, egon dauden baliabideak aprobetxatuz, herri-administrazioetako hautaketa-prozesuetan ikuspuntua ere aldatzen hasteko. Psikologoek ondo azertu dute “gizakiaren zer-nork teoria”, hots, arrakasta norberak lortua eta porrota kanpoko eragileek ekarria. Beraz, hautaketa-prozesuen norabidea aldatu behar dugu, eta gauza izan behar dugu administrazio barruko giza baliabideen kudeatzaileak gogatzeko eta legez ezarritako aginduak betearazi behar dituztenak ikuspuntu honetara biltzeko.

Egun inoiz baino gehiago, ezinbestekoa da profesionaltasuna eta zorrotasuna oparo jartzea enplegatu publikoak aukeratzekoan. Baina irudimen zabalaz ere jokatu behar da, ez baitira egokiak jadanik hautaketa-prozesu publikoak antolatzeko ohiko formulak, bide berriak egiten hasiak baikara prozesu horretan. Izan ere, administrazio publikoek behar dituzten enplegatu publikoen tankera ez da orain urte gutxi artekoa; hori, batetik; eta bestetik, hautaketa-prozesuak multzo-pilotan egiten direnez, eta mesfidantzaz inguratuta daudenez, giroa ere ez da oraintsu artekoa. Horregatik, bada, “zenbat eta gehiago, hobe” formula zahar horri lotuta ezin da jarraitu.

Fulgen Aledo

HAEEko Hautaketa Zerbitzuko burua



Beste batzuetan Europako Batasunak berak baztertu ditu bere deialdietan goi-mailako tituludunak zenbait hautaketa-prozesutatik: Europako Parlamentuko txofer izateko.

Argi geratu behar da ez gaudela antolamendu juridikotik kanpoko jarduketan alde, eta legeria aparatu administratiboaren jarduketa malgu, arin eta eraginkorrerako eragozpen handia delako iritziaren alde ere ez.

Zentzu horretan, aparatu administratiboan teknika eta praktika gerentzialak sartzeko bultzatzen duten mugimenduetariko askok laguntzen dute bermeen hutsaltasunaren ideia zabalitzen, hau da, antolamendu juridikoak jarritako bermeak, funtzio publikoan sartzeko izangaiek dituzten bidezko eskubide eta interesen zaintzan inolako eraginik izan gabe, hautaketa-prozesua oztopatu eta kasu bakoitzean izangai egokiak hautatzea eragotzi besterik egiten ez duten formalismo hutsalak baino ez direlako ideia.

Sinonimo hiztegiak

Orain arte sinonimo hiztegi bakarra genuen; orain, berriz, hiru sinonimo hiztegi kaleratu dira: Bostak Bat taldeak, Elhuyarrek eta UZEIk prestatutakoak. Hona hemen guztien erreferentzia:



Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna

Bostak Bat lantaldea
Bilbo, 1999
732 or.

Sinonimoen Hiztegia

UZEI
Donostia, 1999
698 or.

Sinonimoen Kutxa. Sinonimo eta Antonimoen hiztegia

Urrujulegi, J.
Elhuyar
Usurbil, 1999
276 or.



La Planificación Lingüística y el Cambio Social

Cooper, R. L.
Cambridge University Press, 1997
253 or.


Cooperren arabera, hizkuntz plangintza hizkuntzarekin zerkusirik ez daukaten helburuak lortzeko erabiltzen da, hala nola, batasun nazionala, kontrol politikoa, ekonomiaren garapena, elite berriak sortzeko edo lehengoak iraunarazteko, gutxiengo taldeak planifikatzeko, eta jendea mobilizatzeko. Definizioetan eta gainontzeko teorietan sartu aurretik, lau adibide jasotzen ditu lan honetan, berak definitu nahi duena azaltzeko. Adibideok hauek dira: frantsesaren akademiaren sorrera, hebraieraren biziberritzea Palestinan, EEBBetako feministek hizkuntza ez sexista erabiltzeko egindako kanpainak, eta Etiopian bertako enperadorea atxilotu ondoren egindako alfabetatze kanpaina orokorrak.



Guía de Autoevaluación para la Administración Pública. Modelo Europeo de Gestión de Calidad

MAP
Madrid, 1999
118 or.

Kalitatea kudeatzeko Europako eredu honetan proposatzen den autoebaluazioak bide ematen die administrazio atalei ezagutzeko zernolako egoera daukaten ebaluazioa egiten dutenean, hau da, atalaren indarguneak eta ahuleziak. Behin autoebaluazioa egin eta gero, horrek hobekuntza plan bat ekarri beharko luke. Azken helburua da herritarrentzako administrazio erabilterraza eta eraginkorra egitea, herritarrek izan behar baitu ardatza, eta berarentzat lan egin administrazioak.



Derechos Lingüísticos y Derecho Internacional

R. Fernández Liesa, C.
Dykinson
Madrid, 1999
176 or.

Nazioarteko zuzenbidean hainbat eta hainbat eskubide jasotzen dira, horien artean, hizkuntza eskubideak. Nazioarteko legez gain, estatu bakoitzak ere arautzen du mugaz barruko hizkuntz erabilera. Nazioarteko itun eta lege horiek oinarritzko printzipio batzuk ezartzen dizkiete estatuak, eta estatu askok oinarri horiek ongi asko betetzen badituzte ere, ez da gauza bera gertatzen hizkuntzekin zerikusia duten araeuekin. Hortaz, estatuak ere jokaera aldatu beharra dute, eta kultur aniztasuna onartzetik kultura aniztasunaren garrantziaz jabetu eta bultzatzera igaro.



Traducir para la justicia

Feria García, M. C. (Ed.)
Comares
Granada, 1999
258 or.

Jardunaldi batzuetatik sortutako liburua duzue hau, eta beraz, eta ia ezinbestez, askoren artean egindakoa. Bi zati nagusi ditu: lehenengoan teoriari buruzko gogoetak; eta bigarrenean, kasu praktikoak. Hau da, elkarrekin lotu nahi izan dira justizia arloko itzulpengintzaren alderdi teorikoa, eta horretan ari direnek egindako gogoetak, batetik; eta bestetik, eguneroko lanean sortzen diren arazoak, hots, jardunean sortutako arazoak eta horiek konpontzeko jorratutako bideak.

Elebitasunaren kontu xeblere batzuk

Daukadan lanagatik askotan ibili behar izaten dut Euskal Autonomi Erkidegoko errepideetan, atzera eta aurrera. Joan etorri horietan ikusitako hainbat bide seinaletako hitzak eta mezuak eta horiek gogorarazitako kontutxo batzuk dakarzkizuet lerrootan.

Langile nauen erakundeak hauxe du izen ofiziala: **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea-Instituto Vasco de Administración Pública**. Begi bistako arrazoiengatik siglak besterik ez ditugu erabiltzen erakundea izendatzeko: **HAEE-IVAP**. Erakundeak egoitza nagusiaren helbidea, berriz, honako hauxe du: **HAEE-IVAP. Donostia-San Sebastián kalea. Vitoria-Gasteiz**. Bai, txistea ematen du, baina egia da, egia hutsa. Txistea borobiltzeko HAEEn lanean hasi aurretik langile izan ninduen erakundearen helbidea emango dizuet: **HABE. Vitoria-Gasteiz kalea. Donostia-San Sebastián**.

Lehengo batean, Vitoria-Gasteiztik Donostia-San Sebastia-nera nindoala, aspaldiko lagun baten kasua etorri zitzaidan gogora: **Bilbon** jaio zen, **Donostian** bizi da eta **Vitoria** du abizena. Hau ere egia hutsa da; baina pentsatzen dut, eta espero, berak jaioterria, bizilekua eta abizena ez dituela ofizialtzat hartuko eta ez dituela bi hizkuntzetan esan beharrik izango, bestela ederra dauka gijazoak!

Izenak-eta bi hizkuntza ofizialetan jarri behar izateak, eta jartzeak edo ez jartzeak baditu, bai, bere xeblekeriak. Santurtziko sarrera bateko bide seinale batean **Ongi Etorri** ikusi nuen, lehengo batean; haren ondoan, ezabatuta, **Bienvenidos** somatu nuen. Non eta Santurtzin! Handik ehun bat kilometrora, Donostia inguruko herrixka erabat euskalduneko sarreretako batean ere bada ezabatutako bide seinale bat, ekintza gertatu arte honela zioen seinaleak, euskara hutsean: **Kontuz, hemen euskaldunak gaituk!** Ustez, behintzat, helburu guztiz kontrajarriekin egindako ezabaketak dira hoiak. Bietatik zeinek egin dio, egitekotan, mesede euskarari eta zeinek kalte? Nik garbi daukat erantzuna.

Herriska bereko gasolindegia batean gasoila hartzen hasten naizen bakoitzean neska baten abots grabatu batek hauxe esaten dit, euskara hutsean: **diesel betetzen ari zara**; gasoila hartu eta abiatu aurretik hauxe esaten dit neska berak: **eskerrik asko eta bidai on bat**. Nik, aukeran, nahiago hurrengoan isilik geldituko balitzait, agurra erdarazko euskara horretan entzun baino.

Handik kilometro gutxira, honela dio beste bide seinale batek, bi hizkuntza ofizialetan honako honetan: **Zumaia-Zumaya**; denek ulertu eta inor ez haserretzeko. Herri horretatik gertu dagoen beste bateko sarreran badira bi bide seinale, euskara hutsean daudenak; batak honela dio: **Hondartza**, hondartza bat irudikatu nahi duten lerro batzuen ondoan; seinalearen helburua kanpotarrei, herrian sartu gabe, hondartzara joateko bidea zein den jakinaraztea da. Aurtengo udan ere askotxo izan dira herri hori osorik zeharkatzen ikusi ditudan atzeritarren autokarabana handi horiek. Euskara hutsezko beste bide seinaleak hauxe dio: **Donejakue bidea**. Lehengoan izan nuen horren berri, hango lagun batek Donejakuek zer esan nahi ote duen galdetu zidan.

Askozaz ere nabarmenagoak nornahik ikus ditzake bazterretan, esate baterako Forondako aireportuan letra handi-handitan zegoen (dagoen?): **Salidas-Abiadurak** hura, edota Donostia inguruan duela gutxi arte kilometro gutxiko inguru baten barruan erdarazko cambio de direcciónen ordez ikusitezkeen euskarazko hirurak: **itzulbidea, norabide aldatea eta zentzu aldatea**.

Lehengoan, Maltzagatik pasa nintzen eta gogora etorri zitzaidan laster egiten hastekotan diren **Eibar-Gasteiz** errepidea ia oraintsu arte **Urbina-Maltzaga** izan dela. Eta gogoratu nuen, baita ere, Vitoria-Gasteiztik gertu dagoen Urbinako maestra batek behin kontatu zidana: Urbinako bere eskolaume batek uste omen zuen bere herriaren euskal izena Maltzaga zela. Esan beharrik ez dago zergatik, ezta?

Kontu xeblere hauek guztiek badute, hala ere, beren alde ona hizkuntzaren kezka duginontzat, ez gara batere aspertzen bazterrik bazter gabiltzanean. Nolanahi ere, nik ez dakart inolako proposamenik, ikusitakoak erakutsi eta, ahal dela behintzat, zuen ezpainetan irrifartxo bat marraztea beste helbururik ez dute nire hitzek. Ondorioak ateratzea eta, are gehiago, proposamenak egitea errepidean nik baino atzera-aurrera gutxiago egiten dituen norbaitentzat uzten dut; norbait horrek zerbait esan eta egin beharko lukeelakoan.

Iñaki Iturain
Ignacio Sobre la Fuente


Zuen istorioen zain gaukazue ondorengo helbideetan:

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Eusko Jaurlaritzak
Donostia-San Sebastián kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Faxa: 945-017603
POSTA ELEKTRONIKOIA:
webivap@ivap.es



A b a r a s k a

Erantzun guztiak sei letrakoak dira eta zenbakien inguruan kokatu behar dira. Erantzun bakoitzaren lehen letra zenbakiaren gainean doa beti. Gogoan hartu hitzak ordu orratzen arabera bideratu behar direla.



LUMA

1. Gaitz-mota. 2. Itolarri. 3. Ur gezako arrain-mota. 4. Afrikako zuhaitz-mota. 5. Negar-tanta. 6. Mutikoa. 7. Hazi. 8. Elkarrekin. 9. Lapurdiko hiriburua. 10. Gerra-tresna. 11. Bizitasunik gabea. 12. Danbor-mota. 13. Zeharo, guztiz. 14. Olibondoaren fruituak. 15. Esku itxi. 16. Itsas ugaztun handiak.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 07-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 71 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordea: 945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 83
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

H i e r o g l i f i k o a



LUMA

Non hartu zenuen kolpea?

S o l u z i o a k

ERANTZUNA: UKONDOAN (U K ondoan)

H i e r o g l i f i k o a

1. Anemia. 2. Iomen. 3. Aligot. 4. Baobad. 5. Matkora. 6. Mutia. 7. Garatu. 8. Batera. 9. Baiona. 10. Kanoria. 11. Ilana. 12. Atabal. 13. Erabat. 14. Olibak. 15. Ukabil. 16. Balaak.

A b a r a s k a

**Eurora ohitzea
baino gauza
zailagorik egin duzu.**



Bat. Bizikletan ibili. **Bi.** Goiz jaiki. **Hiru.** Guggenheim esan. **Lau.** Pisatu gabe kilo batek zenbat sagar hartzen dituen jakin. **Bost.** Azterketa bat gainditu. **Sei.** Arrain bati aurpegira begiratu eta zein den asmatu. **Zazpi.** Ohean gailetak birrinik bota gabe jan. **Zortzi.** Ilunetan bainugelaraino joan. **Bederatzi...**

KAI XO EURO



Euroa Ezagutarazteko
Euskal Plana

Plan Vasco de
Comunicación del Euro



Hemen dituzu salgai:



**Unibertsitateko etorbidea z/g
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tf.: 943 78 20 00
Fax: 943 78 31 77
ivap0001@sarenet.es**